

...eta **Kitto!**

GEURE GAIA: Egunkaria itxi zutela 5 urte • GAZTEKITTO: VIII. Eskola-Bideo Lehiaketa abian • KIROLEZ KIROL: Asier Cuevas, Espainiako txapelduna maratoian • FIRIN FARAN: Kezkako dantzariak etzi Bilboko Arriaga antzokian • DANON AHOTAN: Bic-Berrilan saritu dute Holandan • ELKARRIZKETA: Patxi Zabaleta, Aralarreko koordinatzailea

628 zkia. EIBARKO ASTEKARIA 2008-11-22



Bihurri munduko markaren bila



Ego Gain, 4 - behea

Tel. 943 20 34 45

EIBAR

(San Andres pasealekutik)

**ZEZEN
BIDE
AUTO
ESKOLA**



EIBAR



Residencial
Hiri Erdi
Bizigunea

Eibarko inguru onenean bizi nahi duzu?

Gela bateko apartamentuak 180.000 €-tik

Gela biko etxebizitzak 260.000 €-tik

Ordainketarako erosotasuna eta zure etxebizitza saltzeko konponbidearekin

INFORMAZIOA
ETA SALMENTA

Egogain kalea
(Autobus geltokiaren
ondoan)

943 20 21 99


LANDU
Financiak



Euskara Elkarteak

ARGITARRATZAILEA:

...eta kitto! Euskara Elkarteak

HELBIDEA:

Urkizu, 11 - solairuartera
20600 Eibar

TELEFONOAK:

943 20 67 76 / 943 20 09 18

FAXA:

943 20 28 72

Astekariaren E-MAILak:

erredakzioa@etakitto.com

komunikabideak@etakitto.com

publizitatea@etakitto.com

Elkartearen E-MAILak:

elkartea@etakitto.com

normalizazioa@etakitto.com

ERREDAKZIO-KONTSEILUA:

Itziar Albizu

Jose Luis Gorostegi

Silbia Hernandez

Koldo Mitxelena

Ekhi Belar

ADMINISTRAZIOA:

Marisol Uriarte

KOORDINATZAILEA:

Koldo Mitxelena

ERREDAKZIO-BURUA:

Silbia Hernandez

DISEINUA ETA MAKETAZIOA:

Jose Luis Gorostegi

ARGAZKI ARLOA:

Leire Iturbe, Silbia Hernandez
eta Ekhi Belar.

HIZKUNTZA ARDURA:

Juan Andres Argoitia

Maidar Aranberri

PUBLIZITATEA:

Itziar Albizu

Belen Ulazia

Tfnoa: 943 20 67 76

AZALEKO ARGAZKIAK:

Felix Morquecho

BANAKETA-ARDURADUNA:

Ihintza Fernandez

TIRADA:

7.950 ale

INPRIMATEGIA:

GERTU koop. (Oñati)

COPYRIGHT-A:

...eta kitto!

LEGE-GORDAILUA:

SS/430/92

ISSN:

1132 - 1679

("...eta kitto!"k ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik)

Sail honen helburua ez da euskera irakastea, ezta hiztegi bat egitea ere. Gure gurasoek eta haien gurasoek erabiltzen zuten euskera gogora ekartzea eta berreskuratzea da asmoa. Gaur egunean euskerak esparru guztiak hartu ditu eta gaur egun baino euskaldun gehiago ez da inoiz egon; baina, hala ere, oraindik euskera ez da erabateko komunikazio-tresna: hainbat gauza esatea kostatu egiten zaigu, ez dugu gazteleran bezalako erraztasunik eta trebetasunik. Sail honetan euskeraren alde adierazkorra landu nahi dugu, euskerak berez daukan gatzia eta berakatzat berreskuratu. Horretarako aurreko belaunaldietara jo dugu, gure aurrekoek erabiltzen zuten euskera jatorraren berri jasotzeko.

DORNU.- Tornua, gaztelerazko **'tomillo de banco'**. "Aberastu zalakuan, lehelengo egin eban gauzia, dormua ibaira jaurti".

DRAGA.- Frenoa. "Bildurra da, okerrerako daukagun berezkuan, dragia".

DRAMA.- Egoera txarra, negargarria. "Kinzenia galdu jokuan taberna eta gaur be dramia dago ziur haren etxian".

IRAKURLEA PROTAGONISTA eskutitzak

GAUZAK ARGITZE ALDERA


- 1.- Eibarko Zezenzaleen Komisioa erabat INDEPENDENTEA da Pedrucho Eibarko Zezenzaleen Elkartetik eta bere sorreraren helburu bakarra Eibarren zezen jaialdiak antolatu eta bultzatzea da, 2007ko otsailan Pedrucho Eibarko Zezenzaleen Elkartearen Batzar Nagusian hartutako erabakiari jarraituta.
- 2.- Lerro hauen bitartez Eibarko Zezenzaleen Komisiotik zera adierazi nahi dugu: Eibarko zezen plazaren etorkizunaren inguruan sortutako edozein polemikatik erabat aparte egon nahi dugu.
- 3.- Eibarko Zezenzaleen Komisioak Eibarko zezen plazan zezen jaialdiak antolatzeko ahalegin handia egin eta egiten jarraituko du; ahalegin hori gure herriko zezen plazatik irtearen zaletuek izaten duten poz aurpegiekin saritzen dute.
- 4.- Aipatutako jaialdietako antolakuntza eta jarraipena bakar-bakarrik Eibarko Zezenzaleen Komisioaren ardura izan dela eta dela, Pedrucho Eibarko Zezenzaleen Elkarteak gai horretatik kanpo lagata.

Eibarko Zezenzaleen Komisioa

asteko esaldiak HEMEROTEKA

"Inoiz sorteriarekin komunikatzeko herriko zubiak baino luzeagoak behar dituzte etorkinek, etxetik ikusten duclan telefono kabina esaterako: bertokoez ez dute erabiltzen, eta haien artean, aldiz, etxearikiko lotunea da; Afrika, Asia edo Hego Amerikarekin bat egiteko zubia"
(Kepa Junkera, musikaria)

"Mariano Rajoy eskumako buruzagi espainiarrak presidentziara heltzen bada etorkinei legeak betearazi, hizkuntza ikasi eta ohiturak errespetatzera behartuko dituela dio. Zergatik ez die gauza bera eskatzen Euskadin hamarkadak daramatzaten Espainiako bere herrikideei?"
(Asier Ezenarro)



EIBARKO UDALA



GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIA



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILA (HIZKUNTZA POLITIKARAKO SAILBURUORDETZA)

kutxa

Eibarko Udalak, Gipuzkoako Foru Aldundiak, Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak eta Kutxak diruz lagundutako aldizkaria



Eibar inde-Center (I)

Gure Eibar! Nun hago eta nora hoya! Desagertarazitako iraganez, etengabeko oingotxera kondenatua! Batzuen fabore salduko etorkizuna! Gure aurretikuak sasoian sasoiko biharretara amoldatzen jakin zeben moduan, jakin nahi neuke gaurkuok zertara amoldatzen ete dihardugun. Urreko sasoiak dira, taillarrak han eta hamen arkitektura edar batez jantzita sortzen ziran heñian, urgentzietako urbanismo ero batek, gerra osteko Eibar berdes-itxuratzeko zittuanekuak. Baiña... hura bizitasuna! Eta nere inguruko sasoiok halakotxia ezagutu dogu, eta halakotxia jakin dogu maittatzeko. Eta halakotxia da azkeneko urtiotan buruan darabidan penaz eta inpotentziaz buztittako ardura hau. Akordatzeko naiz plan estrategikua aurkeztu zane-kua, eta herritar, soziedade eta herri-taldiekin billera informatibua egiten zirane-kua, eta... Nun heguan eta nora bidian... Etxe-Gorrixak gorritasuna berreskuratu zebanetik ez dot ordukorik iñun topatzen. Eskillara mekanikuak besterik ez, eta etxiak altuak, altuegixak, eta espaloiak eta parkiak neri kontautakuak baiño txikixaguk, txikixegixak. Eta azkena, gure Plazia. Nun hago! Eta Errebal-Center doiala... Baiña lehengo lepotik zer? Kalia, plazia eta herritarrondako aire eta lekuan truke, metrokuadrado komertzialak: Errebal-Center!!... leup! Hara oiñ: "Zona 0". Gure basarritar eta dendarixendako balira sikera!!! Coliseua be honetxeko keizpera makurtuta. Baiña neu be. INDE-CENTER. Gaiñera! Ikusiko dozue, ikusiko dogu.

Josu Garate
(ARKITEKTUA)

Nagusien mendekotasuna aurrezaintzeko programa

Zahartzarora hobea izan dadin". Hitz horiekin aurkeztu zen aurreko barixakuan La Caixa Gizartekintzak herrian apirilaren 7an martxan ipiniko duen programa. Nagusien mendekotasuna aurrezaintzean datza programa horrek, eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren eta Eibarko Udalaren laguntza izango du La Caixak.

Programak Ordizian, Beasainen eta Irunen arrakasta izan eta gero, Gipuzkoako beste herri batzuetara zabaltzen dihardu. Ekimen horrekin partaidetza soziala bultzatu nahi da eta, era berean, bizimodu aktiboa sustatu eta maila funtzional onari eutsi.

Programak arreta psikosozialeko tailerrak antolatzen ditu. Pertsona nagusiak saio horietara joan daitezeko, gainera, garraio egokituak zerbitzua lagatzen du interesatuen esku. Eta ez hori bakarrik, DVD batean tailerretako ariketa garrantzitsuenak bilduko direlako. Bestalde, La Caixak material sorta bat ere eskaintzen du nagusiek era autonomo batean bizitzeko ikas dezaten.

29 salo

Hasiara batean, Eibarren leku bitan emango dira saioak. Beheko Tokiak eta Ipuruko jubilatuetxeak



Programako ordezkariak ibilgailua bertatik bertara ezagutu zuten.

29 saio jasoko dituzte apirilaren 7tik ekainaren 30era arte eta lau talde ezberdin egongo dira. Lehengoa 09.30etatik 11.00etara; bigarrena 11.30etatik 13.00etara; hirugarrena 16.30etatik 18.30etara; eta laugarrena 18.30etatik 20.00etara.

Ikastaroa doanekoa izango da eta gaztelaniaz emango dira. Bestalde, ikastaroak hasi aurretik programa aurkezteko hiru hitzaldi eman ziren. Martitzenean Beheko Tokian, eta eguaztenean Untzagaiko eta Ipuruko jubilatuetxeetan.

Saria Bic-Berrilantzat

Holandako Science Allianza elkarteak saria eman dio Bic-Berrilanti, "enpresa berrien sorrera bultzatzeko" duen ahalmenagatik. Bic-Berrilan 1993an sortu zen eta elkarteko bazkide nagusiak SPRI eta Eibarko Udala dira. Besteak beste, Toribio Etxebarria sariak antolatu eta bultzatu egiten ditu eta Marisa Arriolak zuzentzen du. Bic-Berrilanekin orain 3 urte elkarte hedatzeko lanak hasi zituen eta, horri esker, gaur egun 23 enpresak ba-

tera lan egin dezakete, euren jardunerako behar dituzten arerapen guztiekin. Izan ere, enpresak martxan ipini nahi dituzten askok jotzen dute Bic-Berrilantza, euren proiektua errealitate bihurtzeko laguntza bila. Iaz Kutxak eta Bic-Berrilantza hitzarmena sinatu zuten, oinarri teknologikoa duten enpresen sorrera Gipuzkoan indartzeko; 2010era arte indarrean egongo den hitzarmenari esker, Bic-Berrilantza 150.000 euroko laguntza jasoko du Kutxatik.



Aralarreko zerrendaburuak Portalean



SILBIA HERNANDEZ

Kongresurako zerrendaburu diren Iñaki Irazabalbeitia eta Rebeca Ubera bazkideak (Aralar) martitzenean izan ziren Portalean, 'Gaur egungo egoera politikoa. Hamaika erronka Euskal Herriarentzat' izenburuko hitzaldia eskaintzen. Patxi Zabaleta alderdiko koordinatzailea etortzeko baina azken orduan aldaketa egon zen hizlarietan. Dena dela, Zabaleta aurreko astean Kulturean egon zen, Aralarren Gipuzkoako zerrendak aurkezten.

autuan

KOBRE-LAPURRAK ATXILOTUTA

Otsailaren 10ean Ertzaintzak lau lagun atxilotu zituen Mallabian, euretako bat adin txikikoa, 1.500 kilo kobre lapurtzea egotzita. Herrizaingo sailetik adierazi dutenez, Gaitondo industrialdetik irteten harrapatu zituzten; han zegoen Ertzaintzaren patrulla batek furgonetaren atzeko aldea pisuaren eraginez oso behean zegoela ikusi zuen eta geratzeko agindua eman zion gidariari. Hala ere, gidariak aurrera jarraitu zuen eta Mallabian harrapatu zituzten ertzainek. Lau atxilotuek txatarra lapurtzeagatik aurrekariak zituzten.

ARANTZAZURA MARTXA

Juan Maria Uriarte gotzaiak gidatuta, martxoaren 15ean egingo da urtero Gipuzkoako kristauek Aran-

tzazura egiten duten martxa. Martxak milaka andragizon batu ohi ditu urtero: Soraluze hotelean hasiko da 09.30etan eta Arantzazura eguerdirako ailegatzea aurreikusten dute antolatzaileek. Autobusak 12 euro balio du eta informazio gehiagorako 943820360 telefono zenbakira deitu daiteke (Margarita Olañeta).

SUA OCAMICA HERMANOS-EN

Otaola Hiribideko Ocamica Hermanos S.A. enpresan sua piztu zen martitzen arratsaldean. Egurra eta metala lantzeko esku-lanabesak eta altzariendako sarrailak egiten dituen enpresako pintura-labeetako batek sua hartu zuen eta kearen ondorioz lagun bi intoxikatu egin ziren eta Mendarora eraman behar izan zituzten. Sua suhiltzaileek amatatu zuten, baina suak baino keak sortu zituen arazoak.



Galdu egin dugu

Aspaldi entzun nion lagun bati esaten ez zuela sekula mikrouhinik erabiliko. Esan beharrik ez dago, tresna horretan prestatu dituela hamaika biberoi eta hamaika kafe. Bere promesa hori teknologiaren inperioaren kontrako alferrikako errebeldia ekintza izan zen. Ezinezkoa horri kontra egitea. Galdu egin dugu.

Orain dela hogeita bat urte, Estatu Batuetan zegoen enpresari euskaldun batek horrela aipatzen zituen yankien ohiturak: txartelarekin ordaintzea masiboak, produktu guztiak ontziratuak, "mall"-ak (familiek egun osoa bertan pasatzen duten merkatal zentroak), demandei jarrirako errekurso masiboak, udaldi guneak jende nagusiz bete-beteak... Sasoi hartan Bidasoako muga zeharkatzen genuen eta atentzioa ematen ziguten bai ostalaritzaren prezioek bai arratsaldeko zortzietarako kaleetan zegoen lasaitasunak.

Orain horrelakoak gara gu ere. Galdu egin dugu. Eibarko tradizio handiko denda batek itxi berri ditu ateak, eta aldi berean, kaleak frankiziaz betetzen ari dira; milaka hiritan ikus ditzakegun erakusleio berberak, maniki berberak, arropa berbera, betaurreko berberak, telefono berberak, gure kontsumoa ordaintzeko kreditu berberak... Sagar klonikoak eta ordenagailuz moztutako xerrak. Fotokopiatutako lupiak eta bost minututan sikitzen diren ogi izoztuak.

Eta txarrena... ehundaka lagunek bizia uzten dutela horraino ailegatzeko. Ez ginateke gu izan beharko kontrako bidea egiten dugunok?

Jose Luis Martin
(KAZETARIA)

Radarrak bi ipiniko dituzte A-8an

Gipuzkoako errepideetan dagoen radar kopuruak gora egingo du urtean zehar: gaur egun 11 radar daude martxan, baina urtea amaitu orduko 20 egotea aurreikusi dute Herrizaingo sailekoek. Radar berrietako bi Debabarrenean ipiniko dituzte, A-8 autopistan, Eibar eta Mendaroko parean. Eibarko 69-72 kilometro-puntu inguruan egongo da eta Mendarokoa, berriz, 59-62 kilometro-puntuan. Horrez gain, Azitain inguruan beste radarren bat ipintzeko aukerak aztertzen dihardute, herri-barruko abiadura kontrolatzeko.

Puntu bidezko gida-baimena martxan ipini zutenetik batez



Barixakuan zubitik behera joan zitzaion zamaren zati bat kamioiari.

ere gehiegizko abiaduraren eraginez galdu dituzte puntuak gidariak: lehenengo sei hilabeteetan 10.543 puntu kendu zituzten Gipuzkoako errepideetan, erdia-edo larregizko abiaduran gidatzeagatik.

Istripua autopistan

Aurreko barixakuan kamioi

batek bere zamaren zati bat galdu zuen Eibar parean, Azitain inguruan, kamioiaren kontrola galdu eta atoia zubitik behera zintzilik geratu eta gero. Garabi baten laguntzarekin azkar atera zuten kamioia errepidetik eta trafikokan eragin gutxi izan zuen istripuak.

Eibar Factoring bihar itxiko dute

Eibar Merkataritza Gune Irekiak Eibar Factoring beherapenen azokaren laugarren edizioa zabaldu zuen eguaztenez Astelena

frontoian. Azokan herriko 26 dende hartzen dute parte, eskaintza interesgarriekin: Arizona Jeans, Gloss, Betoño, Cedry, Lolas's, Doroti, Xare, Guby (mutilak), Enigma, Nimu zapatak, Kopina, Txukuna, Irritsa, Solozabal, Pissa, Ttiki, Narrua, Drach, Zapadrach, Nona, Agaiti, Zero, Tribux, Iris Sport, Garmen eta D'Mystic. Azokarako sarrerak euro bat balio du, baina 18 urtetik beherakoek ez dute ordaindu behar. Sarrera bakoitzarekin Txaltxa Zelaiko parkingean automobila ordu biz doan aparkatzeko aukera emango dute. Gaur 17.00etatik 20.30etara egongo da zabalik eta bihar, berriz, 10.00etatik 14.00etara eta 17.00etatik 20.00etara.



ORAIN DELA

10 urte

1998-II-27
226. ZKIA.



Sasoi hartan asko igo zan automobilien parkia Eibarren.



25 igerilari federatu zittuan Deporrek igeriketa taldiak.

- 1998ko urte hasieran, udaltrai ingotik jasotako datuen arabera, 11.688 ibilgailu iragan matrikulatuta zire herriarri eta SS-BB matrikulari rakan sarie barri botako artek hasi ziran errepidiatan ibiltzen orduan.
- Lorena Hermasilla modelerak Miss Euskadi lehiaketan parte hartu zeban, aurretik Miss Gipuzkoako eta Miss Triunfatorako lehiaketa dama izan eta, gero, Harlanda ba, kampana ez jaitia erabaziz parte hartu zeban.
- Inaki Serranok irabazi zeban Narranto Zereamako euskarazko artikuluaren lehiaketan C saillean 1. eta 2. sarria bereganatu zituan. Gaietan, bestalde, Maria Mateosak hartu zeban sari magusizena.
- Urte aindian osatu barik, Klub Deportiboko igeriketa taldiak federatutako 25 igerilari zituan, maskak jehizemak. 13 eta 17 urte bitartekoak ziran jehizemak eta Gipuzkoako herrialdetakoan best damina hartu zeban.

EAEk mozioa aurkeztu du

Eibarko EAE-ANV alderdiak mozioa aurkeztu du Udalean, "osoko bilkurak eztabaida eta onar dezan", alderdiaren jarduna eteteko erabakia dela-eta. Mozioaren sei puntuetan, besteak beste, honakoa jaso dute: "Udal honek oso larritzat jotzen du espainiar estatuak EAE-ANV indar politikoaren suspentsioa erabakitzea. Erabaki hau Euskal Herriaren eskubideen aurkako eraso bortitza da eta independentzia helburu duen herri-sektore zabala kriminalizatzea du helburu,

Euskal Herriaren independentziari atek ixtea (...). Alderdi Politikoen Legea Euskal herriarri independentismoa jazartzeko erabiltzen da eta hori onartezina da (...). Udal hau ez dago herriak aukeratutako ordezkariak legez kanporatuak izatea onartzeko prest (...). Hortaz, bere babes osoa eskaintzen die EAE-ANV udal taldeko kideei (...). Udal honek erabaki honi aurre egiteko kontzentrazioa deituko du 'eskubide guztiak hiritar guztientzako, ilegalizazioak ez' lemapean (...)"



Aurreko egunean Greba Orokorra deitu zuten ezker abertzalearen egoera salatzen eta manifestazio bi egin ziren Eibarren.

Goian aipatutako guztiak bermatzeko hainbat neurri zerrindatzen dituzte, denak

EAE-ANV taldearen izaera eta jarduna errespetatzera bideratuak.

Eibarko armaginak Madrilera

Eibarko hamar bat armagin Madrilera joango dira, martxoaren 7tik 9ra bitartera han egingo den Venatoria-Fitac erakustazokan parte hartzeko. Eskopeta finak egiten dituzten armaginak ordezkatzan Agirre y Aranzabal, Grulla, Garbi, Arrizabalaga, Arrieta eta Kemenjoatekoak dira. Horrez gain, aire-konprimitu armak egiten dituzten Norica eta Laurona ere han



izango dira eta Eibarko Armagintzaren Museoak ordezkaritza izango duela aurreratu dute. Venatoria-Fitac azoka Ifemako Juan Carlos I.a erakusketa-parkean egingo da eta armagintza eta ehiza sektoreko 200 bat erakuslek hartuko dute parte.

Eibartarrak Gipuzkoako zerrendetan

Martxoaren 9an egingo diren hauteskundeetarako kanpaina abiatu berri den honetan, Gipuzkoan aurkeztuko diren zerrendetan eibartarrak aurkituko ditugu Kongresurako zein Senatutarako hautetsien artean. Kongresuaren kasuan Mertxe Garate Larrañaga ordezkari gisa agertzen da EA alderdiaren zerrendan eta Isabel Salud Areste, berriz, Ezker Batua-Berdeak alderdiarenean. Mariasun Gartzia Arregi seigarrena doa Aralar alderdiarekin. Senatutarako zerrendetan, berriz, hauek ager-

tzen dira: Iñaki Zuloaga Alberdi (EAJ), Regina Otaola Mugerza (PP), Mari Karmen Larrañaga Maiztegi (PP), José Luis Vallés Molero (PSE-EE), Leire Ereño Osa (EA, ordezkari), Elixabete Gómez de la Concha (Ezker Batua-Berdeak) eta Iñigo Agirre Arrieta (Berdeak).

Posta bidez botoa eman nahi dutenek otsailaren 28ra arte izango dute horretarako aukera. Alderdi politiko guztiak horretarako erreztasunak ematen dizkiete herritarrei, horretarako propio ipinitako zerbitzua eskainiz.



Zientzia aurrerapenian dago beti. Eboluziñuan. Gauza barrixak probatzen, bide barrixak, helburu barrixak eta modu barrixak. Aurreratzea, eboluzionatzea da zientziak nahi dabena, printzipioz, dagozen arazuk konpontzia. Hori da esaten dana, behintzat. Ustez danon onerako dan eboluziño horretan lorpenak, baiña era berian, akatsak dagoz.

Helburuak

lortzeko bidiak gaxak dira, luziak, eta hauek lortzeko ahalegin asko egin bihar dira. Ahalegin dan horretan saiakera erratuak dagoz eta, askotan, beti ez bada, animalixek jasaten dittue akats horretxek. Zientzilarixek ez dabe, printzipioz, esperimeturik egitten pertsonekin. Animalixak erabiltzen dira gauzak ikertzerako orduan, eurak dira, zientzilarixak akatsen bat egitten badau, akats horren ondorixuak jasaten dittuztenak. Pertsonen onurarako diran esperimentuak, animalixek probatzen dittue lehenago, proba horrek pertsonia kaltetu baiño lehen animalixan ondorixuak ikusteko. Zientzilarixen etikak, egitten dan lez, bermatzen dau horrelakotxiak egittia, baiña pertsona eta erakunde asko dagoz praktika honen kontra. Etenbariko eztabaidia da.



Juliana Ernesto 57 urte, etzekoandria

Bueno, pertsonekin ikertzia baiño hobeto ikusten dot, gitxienez. Ez dot guztiz txarto ikusten, begittantzen jatalako hobe dala animalixekin ikertzia gizakixekin baiño. Ez dot beste erremediorik ikusten. Ez badabe gizakixen traza datenekin probatzen, ez dogu jakingo sendagaixek balixo daben ala ez.



Cecilia Igartua 63 urte, etzekoandria

Gutziz aurka nago. Ikusten dot zientziak, gaur egun, aurrera asko egitten dabela eta animalixek euren bizilekua, bizimodua eta ohiturak dittue, holan, ez dira erabili bihar ikerketetarako. Pertsonen modokuak dira, euren gauzak dittue. Holan, beste urtenbide batzuk aurkittu biharko lirakez.



Angeles Mintxinela eta Vicente Calvo 71 eta 76 urte, jubilauek

Ikusi biharko zan zetarako erabiltzen diran animalia horretxek. Gaiñera, guk horren biharra dakagunez baietz esan leiket, baiña agian ez. Hori bai, ni ez nago klonatzian alde. Eta asko ez badot ulertzen be, nik uste dot Ameriketan pertsonak klonau dittuela dagoeneko.



Luciano Martínez 47 urte, langabetua

Badagoz batzuk baietz, baiña beste batzuk ez diranak erabili bihar. Halanda be, nik ez neuke bat bez erabilliko, ez naizelako animalixak hiltzeko kapaza. Baiña ikerkuntzarako ez dot ikusten beste erremediorik, batzuk hill egin bihar dira bestiak bizirik etartzeko.

Animalixak ikerkuntzan erabiltzia ondo ikusten dozu?

EGOITZA NAGUSIA
Bidebarrieta 20 - behea

M FUNERARIA MUGICA

Tanatorio Crematorio del Bajo y Alto Deba

- Tanatorioa eta Errausketa labea
Elgoibarren (Sigma poligonoan).
- Partikular, mutua eta aseguru etxeei zerbitzuak
- Koroak - Eskelak - Urteurreneko eskelak
- Euskal Herri osoko ospitaleetan hartzen zaitugu
- Nazio eta Nazioarteko trasladoak

Mugica Ehorzketa
Funeuskadi taldea

TELEFONOA (24 ORDU)
943 201 951

**ALEX
MARFULL
ASTIGARRAGA**



**Zenbat solas elkarrekin,
zenbat lan,
beti irriparra zitarra.
Bizitza izan duk laburra...
Orain, uztean lurra,
hau gero arte bat duk, lagun,
ez duk agurra!**

MUGEL IKASTOLAKO LANKIDE ETA LAGUNAK

teen-ajeak



María Zabalko sari bi jaso ditu Narruzko Zezen sarietan. 15 urteko meskak euskararoko jidoien mailan eta jarteleraroko antzerki artikuluen mailan lortu ditu garaipenak.

“Betidanik gustatu zait gidoiak idaztea”

- Espero zenituen Narruzko Zezeneko sariak?

Ba ez. Eskolan esan ziguten Narruzko Zezen sarietarako hainbat lan idatzi behar genituela; behin aurkeztuta, beti daukazu buruan irabazi dezakezun itzaropena, baina ez nuen espero.

- Aurreko urteetan sari gehiago jaso dituzu.

Bai, besteren batean ere irabazi dut.

- Nolakoak ziren aurkeztu zenituen lanak?

Gaztelarazko antzerki-artikuluan antzerkiari egiten nion berba, beste barik. Bestean, euskerazko antzerki-gi-

doian, familia baten istorioak eta euren etxean dituzten arazoak kontatzen nituen.

- Antzerki mundua gustuko duzu?

Idaztea betidanik gustatu zait, baina eskolatik bidaltzen digutelako egiten ditut horrelakoak. Hori bai, atsegin ez egiten dut, ez da zerbait ikaragarri asko gustatzen zaidana, baina atsegin dut, bai.

- Mundu horretan lan egitea gustatuko litzazuke?

Ezin dut esan; gainera, nahiko mundu zaila da. Eskolan bidaltzen dizkigutelako egiten ditut; ez da buruan daukadan zerbait momentuz.

Aste Santua Lezon Gazte Topagunearekin

Martxoaren 21etik 24ra ospatuko da Lezon 2008ko Gazte Topagunea ‘Etorbizuna Independentzia!’ lelopean. Zapatu eguerdian Eibarren egin zuten Gazte Topagunearen aurkezpenean azaldu zutenenez, “Euskal Herriko txoko guztietako milaka gazte hara joango dira eta eibartarrak han egotea ezinbestekoa da. Aste Santuko oporrak pasatzeko planik egin ez duenarentzat alternatiba egokiena da hau. Lau gune nagusi egongo dira eta denbora betetzeko ez da zereginik faltako: tailerrak, hitzaldiak, kon-



tzertuak, akanpalekua, jo-kuak, antzerkia, poteoa, festa, borrokak, jende berria ezagutzeko aukera...”. Lau egunetarako bonoa erosteko aukera dago Montekasino tabernan, 40 eurotan. Informazio gehiago nahi izanez gero, www.gaztetopagunea.org helbidera jo daiteke.



Gazte Topagunera joateko bonoak 40 eurotan salgai daude Montekan.

HOROSKOPOA

ARIES

Luzaketa gehiago egin beharko zenuke, bestela gerriko min hori areagotu egingo zaizu. Geldi egoiteak ez dizu batere laguntzen eta ez itxaron gehiegi hasteko, beste la berandu egingo zaizu. Honez gero berandu ez bada!

TAURUS

Ordenagailuarekin amodio kontu bat bizi duzula dirudi, hainbeste denbora bere aurrean, ez daukazu beste gauzarik egiteko? Ordenagailuak oso hotzak dira eta ezin dizute besarkadarik eman. Horretarako pertsonak hobeto!

GEMINI

Argi ingurukoekin, aste honetan ezin izango zara inotaz fidatu. Enbidiak eta abar antzemango dituzu besteengan, zerbait injustua, izan ere, zuk ez diozu inori ezer txarririk egin. Datorren asterako dena konponduko da.

CANCER

Ezin duzu hain lo gutxi egin. Lehenago oheratu behar zara, gehiago deskantsatu, bestela, zure gorputzak “aski da” esango du. Atsedena ondo hartzea behar-beharrezkoa da, igarriko duzu alde. Gero eskerrak eman.

LEO

Zure burua gehiago baloratu, bestela besteak aprobetxatu egingo dira. Eguenean hitz hauek gogoan izan, gogor jarri eta zurea aldarrikatu. Horrela, hortik aurrera jendeak ez dizu hain ahul ikusiko. Kaleratu karakter hori!

VIRGO

Virgo maitea, alperra baino alperregoa zara eta txarrena da zureak ez duela ia konponbiderik. Horrelakoa zara eta kitto. Aldatu nahi izanez gero ere, ez duzu asko lortuko, zaren moduan moldatu behar izango zara.

LIBRA

Munduarekin haserre zabilta? Ba barrura gehiago begiratu eta zuk egindako akatsak ikusi. Beti kulpa besteek daukate eta, zuk ondo dakizun bezala, hori ez da horrela. Umilagoa izan eta zure akatsak onartzen ikasi.

SCORPIUS

Egun alaiak datorkizuz. Hurrengo eguna aurrekoa baino hobea izango da, zoriona aurkituko duzu edonon. Merezitu dituz horrelako egunak, lantzean behin denok egin behar baitugu barre. Atera, ba, irribarre hori plazara!

SAGITTARIUS

Diru kantitate handi bat jasoko duzu hurrengo egunetan. Zorioneko za! Dirua, gauzak diren moduan, ondo dator beti eta hobeto azkenaldian poltsikoak hutsik izan ostean. Ondo gorde ezazu eta ez xahutu dena!

CAPRICORNIUS

Iluntasun ilunenean ere beti dago argitasun puntu bat eta zurean ere. Puntu horri eutsi eta esperantza izan, txarretatik ere irten daitekeelako edonor eta zu zara gutxiago. Eguaztenetik aurrera dena onera joango da.

AQUARIUS

Liburu artean beste mundu asko aurkitu ditzakezu, askotan errealtatea baino latzagoak, baina ederragoak ere batzuetan. Irakurzaletasuna berreskuratu beharko zenuke, inoiz galdu behar den magia bat baita.

PISCIS

Ai ene, nola duzun logela, dena hankaz gora! Nola egin dezakezu lo horrelako txerritokian? Egun batean erratza hartu eta logela txukundu, ez da bestelako lana ere, egin esfortzu piska bat! Herriarik ez zaizu sortuko.

VIII. Eskola-Bideo lehiaketa martxan

Kameraren atzean egoitea gustoko baduzu, zirena zure pasioa bada edo, beste gabe, lehiaketa batean parte hartu eta sari bat jasotzeko baduzu, La Salle VIII. Eskola-Bideo Lehiaketa jarri du martxan. Ekimen hau Bigarren Hezkuntzako, Batxilergo eta Hezkuntza-Zikloetako ikasleei dago zuzendua.

Lanak eskuz egin behar izango dira soilik. Bestalde, bideoetan jorratuko diren gaiak bakoitzak libreki aukeratu ahal izango ditu. Baina, kontuan eduki behar da, lanak orijinalak izan behar direla, inoiz argitaratugabeak eta beste inongo lehiaketara aurkeztu gabeak.

Epea martxoaren 30a

Bigarren Hezkuntzako ikasleei dagokien mailan, bideoek



lazio irabazleek Gaztelekuan jaso zituzten sariak. Aurten ere Errotan banatuko dituzte sariak, epaimahaikak irabazleak aukeratu eta gero.

gutxienez 5 minutuko iraupena izan behar dute. Eta sariei dagokienez, lehenengoak 100 euro jasoko ditu eta bigarrenak 65 euro.

Batxilergoko eta Heziketa-Zikloetako ikasleek, berriz, gutxienez 10 minutuko lanak egin behar izango dituzte. Maila honetan lehen postua

lortzen duenak 160 euro irabaziko ditu eta bigarrenak, bere aldetik, 125 euro.

Bideoak aurkezteko epea martxoaren 30ean amaituko da eta, hauek, VHS, DVD eta VCD sistemetan egin ahal izango dira. Lehiaketaren ebazpena eta sarien banaketa, bestetik, Errota Gaztelekuan izango da.



Artatxikia, neguko zereala

Gaur egun gure artean ezezagun bat den arren, hemen Euskal Herrian Erdi Aroan gehien lantzen zen zereala dugu artatxikia. Gero Ameriketarik ekarritako artoak eta patatak ordezkatu zuten gure baratzetan.

Bere bitamina eta gatz mineral edukiarengatik da benetan interesgarria. Artatxikia, burdin eta magnesio gehien duen zereala da (ikus taula). Beraz, ahalzateko edota ilea eta azkazalak indartzeko oso egokia dugu.

Bestalde, B multzoko bitamina ugari ditu. Hauei esker oso lagungarria izango zaigu haurdunaldian eta gure nerbio-sistema sendotzeko. Artatxikia neguko zereala da, hau da, batik bat negu partean jan beharko genuke gorputza asko berotzen baitu.

Sukaldean aldiz, hamaika errezeta egiteko aukera ematen digu. Paella moduan jan dezakegu edota sopak egiteko erabili. Hanturgesa begetalak, kroketak, edo pastelak egiteko ere aproposa da. Oso zapo-er suabea duenez, beste edozein osagairekin ondo konbinatzen du. Gure errezetan, arrozaren edo pastaren ordezkotako gisa erabil dezakegu.

100 gramotan.-

	artatxikia	arropa	garia	artoa
proteinak	11	8	13	10
kaltzioa	20	39	41	6
burdina	6,8	2	3,3	1,8
magnesioa	430	119	90	120

Nola egosi artatxikia
- Lehenbizi ondo garbituko dugu urarekin. Ondoren zarzagan batean (oliorik gabe) xigortuko dugu pixka bat.
- Lapiko baten jarriko dugu, bi aldiz ur edo salda gehiagorekin.
- Hogeita bat minutuz irakin ondoren (oso su motelean), eginda egongo da.

Silvana Huegun
(NUTROLOGOA)

Gaztelekuko "Makrolehiaketa" abian

Errota Gaztelekuan 'Makrolehiaketa'-ren edizio berri bat antolatu du 11 urtetatik 16 urtera arteko umeentzat zuzenduta. 'Makrolehiaketa' ekintza eta espezialitate lehiaketa ezberdinak izango ditu: ping-pong txapelketak, ordenagailu jolasak eta eskulanak, besteak beste.

'Makrolehiaketa' parte hartu ahal izateko epea zabalik dago martxoaren 2ra arte. Txapelketa honek arrakasta izan du aurreko edizioetan eta harrera berdina izatea espero da aurtengoan ere.



La Sallekoak Candanchun

Otsallaren 14an eta 15ean La Salle Azitain ikastetxeko DBH 3.eko ikasleak Candanchun egon ziren, mendiko-eski ikastaroa egiten eta ikasitakoa praktikan jartzen. Irakasleek azaldu digutenez, "horrez gain, elkarrekin egun zoragarri bi pasatzeko aukera ere izan zuten ikasleek".



Eguaztenian, otsaillaren 20xan bost urte bete ziran Guardia Zibillak Euskaldunon Egunkaria itxi ebal, Espaiñiako Auzitegi Nazionaleko Juan del Olmo epailliaren aginduz. Andoaingo Martin Ugalde kultur parkian sartu eta Egunkaria “behin-behiñian” ixtia erabagi eban, hango instalaziñuak miatu eta prezintau eta gero. Gabaz hamar lagun atxilotu zittuan Guardia Zibillak eta bost egunez inkomunikauta euki zittuen, terrorismuarekin lotutako delituak leporatuta. Handik egun bira Donostian oiñ arte egin dan manifestaziñorik jendetsuena egin zan Egunkariaren itxiera salatzeke. Bost urte pasau dira eta oindiñok Egunkaria kasuaren inguruko epaiketarik ez da egin. Halanda be, kartzelara juateko arriskuan dagoz 12 lagun. Egunotan ekitaldi ugari egitten dihardue Euskal Herrixan eta hamendik kanpora be, adierazpen askatasunetik haratago doian injustizia salatzeke.

Bost urte EGUNKARIA barik

Juan del Olmo epailliak otsaillaren 25ian, atxilotuak bost egun inkomunikauta egon eta gero emon eban ezagutzera bere ebazpena: Martxelo Otamendi, Inma Gomila, Fermin Lazkano eta Luis Goia aske geratzen ziran, berme edo fiantza pagauta. Joan Mari Torrealдай, Iñaki Uriá, Xabie Orleaga, Txema Auzmendi eta Xabier Alegriarendako, barriz, baldintzarik gabeko espetxeratzia agindu eban. Pello Zubiriari inkomunikaziñua beste 72 orduz luzatu zetsen. Sasoi hartan Egunkariako zuzendarixa zan Martxelo Otamendik tortura jasan ebalá salatu eban kartzelaren atarixan bertan eta, gerora, Uriak, Oleagak eta Auzmendik be torturak salatu zittuen.

Atxiloketak, Egunkariaren itxierak eta horren inguruko guztiak eragiñ haundixa euki eban gizartian, urte gñtxiren buruan egunkari bi itxi izana ulertzeko gatxa izanda be, are harrixarixagua egin jakon askori euskalgintza eta komunikaziño munduarekin lotutako izenak ETArekin lotzia eta erasuaren kontrako mobilizaziñuak benetan indartsuak izan ziran. Otsaillaren 20ko atxilotuetako batzuk kalera urten baziran be, urte bereko urriaren 16xan Martin Ugalde kultur parkiaren kontrako bigarren

operaziño batian Mikel Arrizabalaga, Angel Diez, Enekoitz Etxeberria, Amando Hernández, Mikel Sorozabal, Joxe Mari Sors, Mikel Azkune, Joanmari Larrarte eta Xabier Legarra atxilotu zittuen. Handik 5 egunera danak aske laga zittuen, lehengo lauak bermerik gabe eta bestiak bermea pagauta.

Auzi bi eta 12 auzipetu

Gaur egunian auzi bi eta 12 inputatu dagoz Espaiñiako Auzitegi Nazionalian epaitzeko zain. Sumario nagusixan Joan Mari Torrealдай, Iñaki Uriá, Txema Auzmendi, Martxelo Otamendi, Pello Zubiria, Xabier Oleaga eta Xabier Alegria dagoz eta auzi ekonomikuan, barriz, Torrealдай, Uriá eta Auzmendirekin batera Joxe Mari Sors, Ainhoa Albisu, Mikel Sorozabal, Begoña Zubelzu eta Fernando Furundarena. Danera 280 urteko zigorrak eta 234.000.000 euroko isunak eskatzen dittue. Sumario nagusixan Egunkariaren eta ETArekin arteko ustezko harremana epaitu nahi dabe eta akusatu bakotxarendako 12-14 urte bittarteko kartzela zigorra eskatu dabe AVT eta Dignidad y Justicia alkartekuak, guztieri ETako kide izatia leporatuta, horretarako



probarik aurkeztu ez badabe be. Fiskaltzak 2006ko abenduan aurkeztutako idatzixan, barriz, zera diñue: “Egunkaria ETA finantzatzeko edo haren diruak zurtzeko erabillia izan dala egiaztatu ez danez, ikusitta Egunkaria eta auzipetuak ez dirala ETaren helburuen

estetizista
 Deitu
 12.00etatik
 16.00etara
 eta
 17.00etatik
 21.00etara

behar da BERGARAN esperientziarekin

Tfnoc. 669 003 843

publi resa

- Pin-ak
- Metxeroak
- Kamisetak
- Boligrafoak...

PUBLIZITATE ARLOKO eta ENPRESETAKO OPARIAK

Armagin 3 - behea

eta faxa: 943 70 14 97 Publi.resa@euskalnet.net



alde aritu, ikusitta auzipetuak ez dittuela legitimatu ekintza terroristak (...), ikusitta auzipetuak terrorismuarekin kolaboratzeko inñolako laguntza jakin eta orokorrik ez dabela eman, bidegabia da ahozko epaiketia irekitzia”.

Fiskalak eta defentsak auzia epaiketa barik artxibatzeke eskaeria egin eban, baiña bakarrik AVT eta Dignidad y Justicia alkartiak egindako akusaziñuetan

280 urteko zigorrak eta 234 millioi euroko isunak eskatzen detsez danera hamabi auziperatuerei

oñarriritua epaiketa egittia erabagi eban Zigor Salak. Auzi ekonomikuan, barriz, fiskaltzak akusaziñorik ez aurkeztu arren eta akusaziño partikularrik ez egonda be, epaiketia akusaziño popularrarekin egittekoa da. Gauzak holan, akusatuerei gertzen jakuen aukera bakarra gizartiarren eta iritzi publikuaren laguntasuna da, epaiketak atzera botatzeko edo, behintzat, absoluziñua lortzeko. Herrixetan auziperatuekin alkartasuna erakusteko ekitaldixen antolaketa-rako taldiak sortzen dihardue eta Eibarren be horrekin bat egin nahi daberen jendiari dei egitten jako, lanerako prest egonez gero taldeko ordezkari-xekin harremanetan ipintzeko (herriak@egunkaria.info helbidera idatzitta edo ...eta kitto!ra deittuta edo etorrita). Auziarekin lotutako informaziño eguneratua, barriz, www.egunkaria.info helbidian ikusi leike.

Bost urte, eta epaiketaren zain

Lankide baten deiak esnatu ninduen, goizeko 5:30ak aldera. Egunkariako lagun batzuekin afaltzen egona nintzen gau hartan, eta ez zen ordu asko oheratu nintzela. Bi aldiz azaldu behar izan zidan Jonek gertatzen ari zena, eta hala ere, ezin sinetsi. Guardia zibilek Andoaingo egoitza hartu zutela eta lankideak atxilotzen ari zirela. Irratia pizteko esan zidan, eta Martin Ugalde Kultur Parkera agertzeko, lehenbailehen. Ez ahazteko nortasun agiria, polizia jositako zegoela eta ingurua. Irratian izenak besterik ez ziren, baina entzun ahala, aurpegiak eta aho-tsak zetozkidan burura. 2003ko otsailaren 20a zen. Telefonoa hartu eta beste lankide bati deitu nion. “Aizu, Ekaitz; ba al dakizu?” Ekaitz ere kosta egin zitzaion sinestea. Industria gune batean aparkatu genuen, eta oinez egin genituen azken metroak. Aterki txikiak ikusi genituen, txamarra lodiak, neguko txanoak, eta aurpegi goibelak. Lankideak, lur jota.

Egun horretan bertan, eguerdian, egoitza guztiak itxi zituzten, Juan del Olmo epailearen

aginduz, eta Egunkariako 10 arduradun eraman zituzten preso. Orain, operazio hartan atxilotuetako zazpi eta gerora atxilotutako beste bost kartzelara joateko arriskuan daude, euskarazko egunkari bat sortzen eta bultzatzen egindako lanagatik. Bost urte, eta oraindik ere gezurra ari du. Euskaldunon Egunkaria betiko itxi zuten, eta ostegun goiz hartatik zain gaude, bidegabekeria hori zelan borobilduko duten zain. 2003an hasitako operazio hark euskalgintza osoa jarri du jomugan. Izan ere, akusazioaren paperetan, Egunkariaren gain euskalgintzako hainbat erakunde aipatzen dituzte. Egunkaria itxi zuten, baina ez gintuzten isildu. Ezin gaituzte isildu.

AINARA ARGOTIA



*Lehengo asteko ostiralean
odola zitzaigun hoztu
Zu betirako joan zinela
ezin genuen sinistu
Oroitzenak eta etsipena
denak buruan nahastu
Alex laguna, Alex maixua
ezingo zaitugu ahaztu.*

URKIZU, SAN ANDRES ETA URKI IKASTETXEETAKO
IKASLE, IRAKASLE ETA GURASOEN PARTEZ

**ALEX MARFULL
ASTIGARRAGA**
2008-11-15ean
hil zen



KATU KALE
TABERNA BIDEBARRIETA, 1

Garitana 1957an sortua
GOZOTEGIA

- ETXERA banatzen dugu
- Ezkontza eta despedidetarako **TARTAK**

Julian Etxeberria, 6
Tel. 943 20 24 51

“Dakagun esperantza bakarra jendiaren laguntzarena da”

- Zelako egoeran zagozle Egunkaria auzixan auziperatutakuak?

Auzi bi dittugu, bata da Egunkariaren itxierakua eta hortxe bakarrik akusaziño popularra daukagu eta gero daukagu auzi ekonomikua, akusaziño popularrarekin eta hortik fiskalak egin daben akusaziñuarekin. Epai-ketaren zain gagoz, epai-keta desbardin bi izango dira, itxierako auzia batetik eta ekonomikua bestetik, hori prozedura laburtua izango da, eta oindiok ez dakigu epaiketa noiz izango dan edo zein izango dan lehenago, itxierako sumari-xuarena (sumarixo nagusixa) ala prozedura laburtuko auzi ekonomikua. Joan Mari Torreal dai, Iñaki Uria eta Txema Auzmendi bixetan dagoz eta, gero, batzuk itxierako sumari-xuan gagoz eta beste batzuk ekonomiku-ak bakarrik. Danera 12 la-gun gagoz eta zigor eskae-riak oso altuak dira.

- Zergatik dagoz auzi bi? Zer dala eta berezli dittue sumario nagusixa eta auzi ekonomikua?

Epai-lik uste dau, sala-tzen dau, delitu ekonomi-kua dakagula gestiñuan eta horrek ETArekin lotzen dit-tu, horregaittik egin nahi dau epaiketia Auzitegi Na-zionalian, baiña berak era-bagi eban sumario bi egi-ttia, berari galdetu biharko



jako zein dan kontua. Auzi ekonomikuan deliturik ez daguala diñogu eta hortxe dakagu Gipuzkoako Dipu-taziñuaren txostena, eta delitua egotekotan be Tolo-sako epaitegixan edo Do-nostiako auzitegi probin-tzialian epaitu biharko litza-ke, baiña lehelengo sumari-xuan ETAkuak izatiaren akusaziñua egonda, esaten dabe bigarrenekuak be ETAkuak dirala, ETaren me-sedetan egindako delitu ekonomikua dala, horrela-ko trikimaillu bat erabiltzen dau eta ez dogu lortu auzi hori Tolosa edo Donostiara eruatia eta Auzitegi Nazio-nalian ikusiko da.

- Zigor eskaerak benetan altuak dira, 280 urteko kartzela zigorra eta 234.000.000 euro danera.

Lehelengo sumari-xoko gehixenendako 14 urteku eskatzen dabe, 12 ETako kide izatiagaittik gehi beste bi ETako zuzendaritzako ki-de izatiagaittik. Eta bigarre-nian 26 urteko zigor eskae-ra batzuk badagoz eta diru askoko isunak.

- Zure kasu konkretuari begiratuta, 14 urteko espetxealdixa eta 15 urteko inhabilitaziñua eskatzen dabe. Horrelakuen aurrian zelan sentitzen zara?

Ez dogu esperantza haundirik 18/98kua ikusi eta gero. Ikusitta nola Guardi Zibillak edozein era-tako akusaziñua egitten da-bela, akusaziño popularrak eta epai-lik be akusaziño horrek bere egitten dabela eta orduan zu enteratzen zara ETako kide zarala su-

marixua irakortzian edo sententzia ikustian, epai-lik hori esaten dabelako. Orduan, horrelakuak ikusi-tta, gure esperantza baka-rra jendiaren laguntzarena da, Euskal herriko jendiare-na eta nazioarteko iritzi pu-blikuarena, komunikabidie-nak... iritzi publikua gure alde eukitta, ba gatxagua izango da kondena-sentent-zia bat egotia, baiña epai-lik iñolako lotsa barik edozein akusaziño eurena egiñ eta kondenatzen ba-gaittu, ba orduan egoeria konplikaua da.

- Oin 5 urte Egunkaria itxi ebenian jendlak babes haundixa emon zetsuen, iñoliz egin dan manifesta-ziñorik jendetsuena egin zan. Gaur egun sentitzen dozue jendliaren babesik?

Babesa badago, zeuek deittu izana babesa era-kusteko modu bat bada. Guk badakigu Euskal Herri-ko jende gehixenak siñes-ten deskula, Europako ko-munikabide askok be si-ñesten desku eta auzitegi-kueri erakutsi egin bihar jakue ezin dabela edozein akusaziño egiñ edozein modutan, gure delitu ba-karra euskeraz Egunkaria etaratzia izan dala eta epaiketa ez egittia ez ba-dogu lortzen, behintzat sententzia absolutorixua izatia lortu bihar dogula. Epaiketa bittan gaiñera.

AKONDIA

Albaitari Zentroa

Julen Arano / M^o Jesus Blanco

Bitto Sarasketa, 12
☎ 943 12 74 15

MUGICA iturgintza

- GASA ETA ITURGINTZA
- ALTZARI ETA OSAGARRIAK
- BAINUONTZIAK eta HIDROMASAJERAKO KABINAK
- HANSGROHE GRIFERIA
- AIRE EGOKITUA
- ZORU ERRADIATZAILAIA

hansgrohe

San Juan 15 - behea
Tfnoa. 943 201 030 / Faxe. 943 207 224

LORADENDA

- Lora eta landare natural eta lehorrak
- Ezkontzetarako lorak

San Juan, 1 ☎ 943 20 33 29 EIBAR

Lea Artibai
Ikastetxean ikasi
ondoren kalitatezko
lana daukat

Aurrematrikula Ekainaren 1etik 7ra

batxilergoa

erdi mailako zikloak

- mek2** *Mekanizazioa*
- me2** *Mantenimendu
elektromekanikoa*
- fc2** *Fitze instalazioak*

Polimeroen ingeniari-tza

gei mailako zikloak

- pc3** *Plastiko eta
kautxuak*
- af3** *Administrazioa*
- da3** *Informatika*
- ia3** *Elkargiak*
- st3** *Telekomunikazioak*
- sr3** *Elektrizitate/
elektronika*
- pm3** *Mekanika
diseinua eta
fabrikazioa
(CAD-CAM-CAE)*
- pf3** *moldeaketa eta
sinterizazioa*

lea artibai
ikastetxea

Kemari Etorbidea, 19,
40270 Markina-Xemein. (Bizkaia)
Tf. 94 618 96 02 fax. 94 618 91 00
info@leartik.com
www.leartik.com edo zuzenean www.ih.leartik.com

Dagoeneko
67.500 bisita
baino gehiago
izan ditugu!

...horietako
bat izan zara?

...azken orduko berriak...

...elkartea atalka...

...asteko alea...

...agenda...

...eta orain
buletin zerbitzua!!!

www.etakitto.com

GREMIOEN GIDA



ANTENAK

BALATZ S.L.
SAT, TVC, Bideoa

Bidebarrieta 37 Tfnoa. 943 20 05 08
Faxa. 943 20 04 94

Ego Gain z/g
Tfnoa. 943 12 73 50
Faxa. 943 20 73 60
www.trinmer.com

trinmer

TELEKOMUNIKAZIOAN
PROFESIONALAK

AROTZAK

ulmar
S.L.
metalezko eraikuntzak

metalezko eraikuntzak
aluminiozko eta pvc-ko aroztegia

ulmar, s.l.
Txonta, 30 - 1. eta behea
Tfnoak: 943 12 13 67 Faxa: 943 12 01 50

ERAKUSKETA
EIBARREN, Urkizu 26an (Tel. 943 12 74 01)

AUTOEN MEKANIKA

IMAR AROZTEGIA

- Barruko atek eta blindatuak
- Oholza eta parket mugikorak
- Armairu enpotratuak eta neurriak
- Sukalde eta elektrodomestikokoak

Olaso, 15
55-A-1 pabilioia
ELGOIBAR

Tfnoa.-Faxa: 943 53 14 71
Mobilak: 609 054 978 / 646 905 564

urki s.a.

AUTOEN MEKANIKA

Arragueta zeharbidea 1
Tel. 943 12 05 95
Faxa. 943 12 05 72

ELEKTRIZITATEA

• Barne apainketak
• Mantenimendu eta automatismoak

MANTELEC, S.L.

Ubitxa 7-11 Tfnoa. 943 70 10 44
Faxa. 943 20 85 48

urki s.a.
elektrizitatea

INDUSTRIALA:
— instalakuntzak
— bobinatuak
— automatismoak

Arragueta zeharbidea 1
Tel. 943 12 05 95
Faxa. 943 12 05 72

AROTZAK

IÑAKI

Egurrezko mota guztietako lanak Ateak - Tarimak Altzariak

Milaflores 10 Tfnoa. 943 20 35 55

ELEKTRIZITATEA

Aroztegia □ Ebanisteria
□ Obra aroztegia

ARPINTERIA NANBAIZA S.L.

Egiturak, barruko eta kanpoko atek, armairu enpotratuak, tarimak, parketak, rodaptesak, eskilarak, miradoreak, moldurak, oholak, janbak, leihoak

Otaola Etorbidea, 27 Tel. eta Faxa. 943 201 757

ATEZAIN AUTOMATIKOAK - ARGITAPENA -
MUSIKA - ETXEETARAKO ETA
INDUSTRIETARAKO INSTALAZIOAK

ELECTRICIDAD IBAIB S.L.

INSTALAZIO ETA MUNTAIA ELEKTRIKOAK

Urkizu, 32 behea Tel./Faxa. 943 12 73 75
Mobila. 607 71 38 74 / 607 71 38 73

ALDIDE

943 200 443
605 772 467

Barne dekorazioak
Aurrekontuak konpromiso barik

JUAN GISASOLA, 5
GREMIOEN GESTIOA

SUKALDE ALTZARIAK

ARROZTEGIA
Iparragirre Anaiak

F. Calbetón, 4 behea Tel. 943 20 29 27
Tailerra: Apalategi auzoa Tel. 943 12 01 92
Mobila: 657 79 56 78

GURIA

ELEKTRIZITATEA

* Muntaiak eta proiektu elektrikoak

Matsaria 2 - 7. pabilioia
Tel. 943 70 08 95 - Faxa. 943 82 00 27
www.electricidadguria.com

ERREFORMAK

Obra gauzatzeko proiektuak
Obra zibila eta eraikuntza
Obra osoa, giltza eskura
Gremioen koordinazioa
Behere errehabilitazioa etxetan
Etxetako errehabilitazioa
Ixtxadetako errehabilitazioa

AILA

ELGETA-KALE (Punto y Aparte-ren ondoan)
Tel. 647 426 352 / 943 530 391 / 670 957 799
Faxa. 943 530 392 allaproiektuak@hotmail.com

ESTUDIOS ARRILLAGA

Proiektu eta erreformak
Gremioen zuzendaritza

ARRAGUETA 12 - Eibar- Tel. 943 20 06 98
ROSARIO 15 - Elgoibar- Tel. 943 74 40 19

Informazio gehiagorako



943 20 67 76



GARBIKETAK


INDUSTRIA GARBIKETA
Otaola Etorbidea, 13
Tfnoa. 943 12 71 08 Faxa. 943 20 67 94
www.escudero.euskalnet.net


TREJO
GARBIKETAK S.L.
Tel: 943-752557
Faxa: 943-752556
16 Postakutxatila - Sorluze
Garbiketa eta mantenimendua

HORNIKUNTZA


GARAIONDO BASTIDA
hornikuntza industrialak
Telef. 943 12 02 08
Faxa. 943 12 02 12 **Barakaldo 9^{an}**

IGELTSEROAK

JOSE MARIA IRAZABAL, S.L.

Urkizu Pasealekua, 7
Tfnoa. 943-120108
ERAIKUNTZA ETA ERREFORMAK
IGELTSERITZA ETA
GREMIOEN KOORDINAKETA
www.irazabal.net

ITURGINTZA

INDA iturgintza

UR, GAS eta
KALEFAKZIO
INSTALAZIOAK
• Proiektuak eta aurrekontuak
• Bainu eta sukaldeen erreformak
Tfnoa eta Faxa: 943 12 18 64 (tailerra)
Mobila: 669 29 34 63
Asua-Erreka, 2

KRISTALAK


ACHA
Kristaldegia
KRISTAL ARLOKO SOLUZIOAK
ERREKATXU 3^{an}
eta faxa: 943 20 39 03

PINTURAK


Tfnoa. eta Faxa.
943 20 05 94
T. Etxebarria, 8 - behea
Pintura orokorra
Margotutako paperak
Zoruen kolokazioa
PVC zoruak
Maketak
Alfonbrak
Kortinak
Etxerakoak
Osagarriak


PINTURAS ARRATE, S.L.
• Nexa Autocolor
• Herberts industrial
• 3M produktuen banatzailea
ARANE, 13 parrate@terra.es
Tel. 943 20 41 04 Faxa: 943 70 06 89

ARREGI

Juan Gisasola, 2
Tel/Fax: 943 20 79 37
Mobilak: 675 70 87 52 / 670 73 61 00
MARGOLARIAK
GOI MAILAKO DEKORAZIOA

PINTURAK

Pintura
Goi mailako dekorazioa

Ollería 4, 5. A DURANGO
Tel. / Faxa: 94 620 03 01
Mobilak: 607 41 71 81
666 74 30 88

MALKAR PINTURAS

Sostoa, 16 ac behea
Tfnoa. eta Faxa. 943 700 900
Mobila. 656 784 396

SARRILAGINTZA


GILTZAK
Era guztietako sarrailen salmenta eta mantenua
Segurtasun-instalakuntzak
Sarrailen egokipenak
Segurtasun kutxak
Era guztietako giltzen kopiak
Tabatutako ateak askatzen ditugu
Arragueta 3
Tfnoa. 943 70 13 91 Faxa. 943 20 86 99

Berrizen izango du hurrengo erronka; ez nolana hikoia, gainera. Orain arte inork egin ez duenarekin ahaleginduko Ernesto Ezpeleta "Bihurri": esku bakarrarekin 2'50 metroko perimetroko enborra mozteari ekingo dio martxoaren 1ean, eguerdiko 12.30etan, Bizkaiko herri horretako kiroldegian. Aurretik ere hainbat marka eginak ditu Eibarko aizkolariak: horrela, hamar kanaerdiko 18'34" denboran moztu zituen; eta egur handiekin, 3'5 metroko perimetrokoa moztu zuen Mendaron ordubetea, 4 metrokoa ere Mendaron ordubete eta 39 minututan, 4'20koa Eibarren ordu bi eta 20 minututan eta 5 metrokoa Abadiñon 3h7'48"tan, 4.797 aizkorakada emanaz. Hortik aparte, Bizkaiko azpitxapelduna izan da hirutan, bikotekako txapelduna behin eta Abadiñon, San Andres eta San Isidro Torneoetan, Euskal Jaialdian eta Bizkaiko eta Nafarroako hainbat torneoko irabazle.

Ernesto Ezpeleta "Bihurri", AIZKOLARIA: "Enborra moztearekin nahikoa izango dut"

- Berrizen ez duzu lan makala izango. Zer izango da zailena, zer neurritz zailtzekoa?

Kortean asmatu beharko dut. Bestalde, arnasari erreparatu beharko diot, zenbat jende biltzen den eta hori guztia kontua hartuta. Eta, azkenik, ikusi behar besoak zelan erantzuten duen: ea muskuluak ez diren gogortzen, ez dudana minik igartzen.

- Leku itxia izateak eraginik izan dezake?

Nahiago izango nuke kanpoan, baina sasoi honetan eguraldia ezin duzu ziurtatu eta uler-tzen dut kiroldegian jardun behar izatea.

- Zenbat aizkora erabiliko duzu? Zein neurrikoak? Eta laguntzailerik izango dugu?

Zortzi-hamar bat, hainbat neurritakoak, metroko luzera dutenak tartean. Aizkora hain luzeekin, oso beharrezkoa da kolpea ematerakoa guztiz asmatzea; bestela, alperriko lana egiten diharduzu. Laguntzaile bi edo hiru beharko ditut, igual buelta ere eman beharko zaiolako egurrari. Horri gehitu behar zaio altueran jar-dungo dudala, metro pasara igota.

- Prestaketa berezirik egin duzu?

Ez, konturatu nintzelako esku bakarrarekin jardutean besoa larregi kargatzen zitzaidala. Noizean behin egin dut saio bat edo beste; gero izotza ipini... eta horrela. Hasieran bai, entrenamendu dezente egin nituen, baina kalte-rako zela ikusi nuen, besoa mugitzen zitzaidala. Batez ere, mendian ibili naiz asko.

- Zer egur eramango duzu?

Pagoa izango da; hori ziur. Baina oraindik ez dugu aurkitu. Azkenean, dagoenari eman behar! Kanakoa gustokoa dut, baina lan zaila izango da.



- Zenbat denboran egingo duzun aurrekusi duzu? Zeozer botatzeko moduan zaude?

Galdetzen didaten guztiei esaten diet lehenengo egurra moztu behar dela. Ondoren, kalkulatu. Eta gero hitz egingo dugula. Aizkorriko mendi maratonia lehenengo aldiz egin zuenari galdetzea modukoa da hori. Sekula egin ez den lana izanda, dakigun bakarra da oso zaila izango dela. Eta buruz jokatu beharko dugula.

- Horrelako probatan aurretik ere jardundakoa zara. Notzbalten pasatu zalzu burutik amakuko ez zenuenaren sentsazioa?

Gaizkien Mendaron pasatu nuen, lau metroko perimetroko enborrarekin: ez genuen edan eta hori asko igarri nuen azken ordu laurdenean. Eibarren ere larri ibili nintzen, 4'20koa moztu nuenean; ordukoan eguraldi kaskarra izan genuen eta egurra ere gogorra suertatu zitzaigun, korapilo askokoa. Bost metrokoa moztu nuenean, kalanbreak-eta izan nituen, baina ez nuen hainbeste sufritu.

- Aizkolari moduan, zure ezaugarrietan begira, ausartuko zinake esatera zer duzun onenen eta zertan ez zaren hain lalao?

Txarra esan nahi duzu? Lepotik gorakoa. Eta onena? Sufrizten badakidala. Arnasa hartzen-eta, ondo moldatzen naiz baita.

- Istripuak izan dituzu aizkorarekin, lesioak... Ondorioz laga dizute?

Berrizen egin behar dudana da ondorioetako bat. Hanka moztu nuenean, oso ondo laga zidaten Mendaroko Ospitalean. Besokoarekin, bestalde, bost tendoi moztu nituela-eta, sendagileak geldirik egoteko agindu zidan. Makurtzeko ere zailtasunak... eta orduan hasi nintzen esku bakarrarekin probatzen. Hortik erronka berria.

- Ezagutu duzun aizkolari onena?

Mindegia, zalantzarik gabe. Halakorik ez dago, burutik hanketaraino aizkolaria baita, egur txikiarekin zein handiekin. Ia 60 urterekin zelan dabilen ikusterik besterik ez dago.



FELIX MORQUECHO

- Txapelketetan balno gehiago, erakustaldiekin zaude zentratuago. Zelan planifikatzen duzu denboraldia?

Azken urte biotan ezin izan dut planifikatu ere, lesio larri bi izan ditudalako. Erakustaldi gehienak uda saioan egiten ditugu, hori bai.

- Non ibiltzen zara, batez ere? Kanpoko jendeak zelan hartzen ditu erakustaldiak?

Frantzia aldean, Madrilan, Katalunian eta Andaluzian asko, beste batzuen artean. Errepi-katu ere egiten dugu leku batzuetan. Aditua hemengoa bada ere, beste seriotasun batekin jarraitzen duelako, kanpoko jendeari erakargarria egiten zaio eta estimatzen du.

- Etorrizunetik ikusten dituzu aizkora munduari. Gazteak badatoz?

Bai, ateratzen dira. Etorrizuna, dena dela, ez dago ziurtatuta, laguntzarik ez delako. Egurrak erosi, aizkorak... dirua galtzen beti eta, laguntzak zer-eta, enpresa partikularrendako... Horrela ez goaz ondo!

- Semea duzu, 8 urterekin, Euskal Herriko aizkolari gazteena... Sanjuanetan ikusteko aukera izango dugu?

Ikasten dabil, baina aita baino gehiago eskatzen dute bera. Garrantzitsuena gozo egiten erakustea da, ofizioa hartzen laguntzea. Gustura nago berarekin. Eta bera... zelako ilusioa egin zion Erregeek ekarri zioten aizkorak! Kabidu ere ezin! Sanpedrotan egin zuen debuta eta, bai, Euskal Jaialdian Untzagan izango da, Dioni Kortinarekin batera: Eibarko hiru kirolari izango gara batera, Eibarko Euskal Jokoa taldekoak hirurok.

Eibar KE - Malaga, domekan Ipuruan

Eibar KE-k Malaga jasoko du domekan Ipuruan 17.00etatik (Localia) aurrera. Talde andaluziarra igoera postuetan dago eta Lehen Mailara igotzea da euren helburua. Javier Mandiolaren taldea, berri, erdialdeko postu lasaietan dago eta mailari eutsi nahi diote lehenbailehen.

Joan den astean 2-1 galdu zuen Eibarrek Tarragonako Nastic-en aurka. Defentsan akats bi egin zituen talde armaginak eta buruz gol bi sartu zituzten. Horrela, domekan Tarragonan jasadako porrota ahaztu nahi izango dute Manixen mutilek.



Igeriketako Gipuzkoako kirol zehaztasun liga

Liga horretako 4. jardunaldia jokatu zen asteburuan eta, benjamin mailan, Aner Lópezek 2. postua eskuratu zuen eta postu bera lortu zuen ere Urvat-Urkotronikeko taldeak bular erako erreleboko proban (8x25 m.). Alebin mailan, bestalde, Arrate Villagarcía 4.ena izan zen bizkar modalitateko 100 metroetan; eta 4x50 tximeletako errelebotan, nesken taldea 3. postuan sailkatu zen.

Helduen taldeak bihar jardungo du Legazpiko igerilekuan neguko denboraldiko azken jardunaldian.



Azitain foball-zaletuen txapelketatik kanpo

Iaz urteurrena ospatu eta gero, foball-zaletuko txapelketaren hasieratik parte hartzen zuen Azitainek aurtengo liga torneoaren laga behar izan du, barne arazoak zirela-eta, tartean hamaikakoa osatzeko azken jardunaldiotan izan dituenak.

Hamahiru dira, beraz, gaur egun txapelketan jarraitzen dutenak eta hiru dira txapelketa bereganatzeko lasterketan dihardutenak: Jose Autos, 42 punturekin; Durango, 41ekin; eta Teknografik, 39rekin. Asteburuan ez zen aldaketarik izan denek irabazi zutelako. Asteburu honetan, Jose Autosek atsedena hartzen duen bitartean, Durangok eta Teknografik-ek euren artean jokatu beharko dute.

Rugbiko nesken taldea osatzen doa

Eibar Hierros Anetxe rugbi klubak nesken rugbi taldea osatzen dihardu gutxinaka eta oraindik tokia du kirol hori gustuko duen jendearentzat. Orain arte ezin izan dute partidu ofizialik jokatu taldea osatzeko jokalaririk batzuk falta dituzte-eta (15 jokalariz osatzen dira zelairatzen diren taldeak). Dena dela, irailean hasi zituzten entrenamenduak adin guztietako taldetxo batekin eta rugbia zer den jakitea nahi duten eta orain arte hor jardun ezin izan dutenekin esperientzia partekatze gogoia dute. Astean birritan entrenatzen dute: martitzenetan, 19.00etatik aurrera; eta egunetan, 18.00etan hasita. Kirola egitea eta giro jatorra dastatzea nahi duzuenok badakizue, beraz, aukera berria duzuela; horretarako, Unbera igo aipatutako egunetan edo, bestela, 618-046737 telefono zenbakira deitu dezakezue.

Herri Irratia Eibar
Loyola Media

S.D. EIBAR - MALAGA C.F.

Jarraitu partidua:
Borja Rodríguez
eta **Herri Irratiko**
kiroletako taldearekin

Otsailak 24 domeka, 17.00etan

90.7 Fm

Cuevas Espainiako txapeldua maratoian



Goierrri Garaia taldeko Asier Cuevas Eibar-ko atletak lorpen handia eskuratu zuen domekan Valentzian, bertan jokaturako Espainiako maratoi txapelketa bereganatuz. Egindako marka ordu bi eta 15 minutukoa izan da, orain dela zazpi urte Donostian egindako orain arteko krono hoberena, 32 segundotan hobetuz. Cuevas bigarren gipuzkoarra da, Joxe

Apalantzaren ondoren, Espainiako txapelketa lortzen. Berarendako ere ezustea izan da lortutakoa eta lasterketaren bigarren zatia lehenengoa baino minutua pasatxo azkarrago egin zuen. Domekan Laudion jokaturako den Euskadiko kros txapelketan hartuko du parte, berak dioenez talde lana egiteko, "orain indarrak berreskuratzea tokatzen zaidalako".

Irteera bi Deporreko mendizaleekin

Klub Deportiboko mendizaleek euren egutegiarekin jarraitzen dute eta irteera interesgarriak dituzte ikuspuntuan hurrengo hilabeterako. Horrela, martxoaren lehenengo asteburuan, hau da, hilaren 1 eta 2rako mendiko eskia praktikatzeko "eta baita alpinoa ere, nahi duenak" irteera antolatu dute Baregesera, Frantziako Pirinioetan, Lourdesetik aurrera joanda. Bigarren aukera bat ere badago, polita hau ere, Aste Santuan egitekoa. Jaiak aprobetxatuz, bost eguneko irteera antolatuko dute Riañora, "19an, San Jose egunean, goizean urten eta 23ko gauean Eibarrera bueltatzeko". Ir-

teera horretan Boca de Huérgano hotelean hartuko dute ostatu.

Pirinioetara joateko zein Riañora, jendea hartuko dute 30 plaza bete arte. Interesatuiei, beraz, izena lehenbaile-

hen ematea komeni zaie; horretarako, mendiko batzordekoek Deporreko bulegoetan egongo dira, ohi denez, astelehen, eguazten eta barixakuetan, 19.30etik aurrera.



Laura Albistegi Euskadiko altuera txapeldua

Teilatupeko Euskadiko atletismo txapelketaren bigarren eta azken jardunaldian, Eibarko Klub Deportiboko atletak urrezko domina irabazi zuen altuera jauzian. Hala ere, ez zen bera izan eibartar bakarria urrezko domina eskuratzen Anoetako belodromoan jokaturako txapelketa horretan, Real Sociedadera joandako Edorta Aranburuzabalak ere postu bera lortu baitzuen pertika jauzian.



Herriko karatekak Aretxabaletako txapelketan

Eskola kiroleko karate txapelketa jokatu zen domekan Aretxabaletako kiroldegian, eta bertan parte hartu zuten 90 neska-mutilen artean Urki-Amaña klubeko zazpi ordezkari izan ziren. Lau mailetako norgehiagokak izan ziren jokoan kata modalitateko txapelketan: benjamin mixtoa, alebin mixtoa eta infantil arloko mutilena alde batetik eta neskena bestetik. Benjaminetan, Ayoub Samadi, Diego Arnaiz, Jon González, Mikel Pérez eta Geneba Barrio izan ziren; eta alebinetan, Iker Narbaiza eta Yeray Barrio.


ALEX MARFULL ASTIGARRAGA

2008-11-15ean hil zen, 54 urterekin

ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi

FAMILIAREN PARTEZ

Haren aldeko IRTEERA MEZA bihar, zapatua, hilaren 23an, ospatuko da San Andres elizan, arratsaldeko 19.00etan



“Erabakiorrak izatera iritsi nahi dugu”

Hilabete baino gutxiago geratzen da hauteskunde orokorretarako. Martxoaren 9an jakingo da estatuan nork aginduko duen, galtzailea nor izan den eta bestelako emaitzak. Aralar-ek zeresana izan nahi du hauteskunde hauetan eta bere garrantzia handitu nahi du Patxi Zabaletak koordinatzen duen taldeak.

- Nola egiten dlo aurre Aralar-ek martxoaren 9ko hauteskundeel?

Apaltasunez eta tinkotasunez. Apaltasunez, gure bitartekoak gutxi direlako. Gure apostua oso zaila da, besteak beste, politikan inork ez duelako erreztasunik ematen edo oparirik egiten. Esate baterako, baztertu egin gaituzte eztabaida publikoetatik, komunikabide publikoetan daudenetatik, baina saiaturko gara gure tokiak bilatzen. Eta tinkotasunez. Guk uste dugu gure mezua alde batera eta bestera gogor bota beharra daukagula gai sozialetan, gai politikoetan eta gai demokratikoetan.

- Zeintzuk dira zuen proposamenak?

Hamaika proposamen egin ditugu eta ildo nagusiak hauek izango lirateke: bata normalkuntza politikoa eta pakea da. Bigarrena da erabaki ahalmena, erabaki kolektiboaren eskubidea defendatzea, beste arlo batean, gure jarrera politikoek eramaten gaituzte oposaketa zuzen bat egitera eskuin muturreko PP edo UPN-rekin edozein konpromezu politiko hartzeari; eta gero, ezkerreko politikak, bai ongizatearen mailan bai lanharremanen mailan bai ekonomia arlo guztietan.

- Zeln emaitza lortzea espero duzue?

Gure apustua da Gipuzkoan diputatua ateratzea. Bizkaian eta Araban, bestetik, botoen %5 lortzea iritsi nahi genuke. Hori da jarri dugun helmuga, badakigu-

lako Aralarrek garrantzia izaten eta baldintzagarria bihurtzen den neurrian aldatu egingo direla Euskal Herri osoko eta, zehazki, Euskal Erkidegoko mapa politikoa eta jokabide politikoak. Beraz, erabakiorrak izatera iritsi nahi dugu.

- EAE-ANV eta EHAK llegalizatu egin dituzte, Batasunako hainbat kide atxilotu. Demokratizak une larriak bizl ditu Euskal Herrian?

Bai, Euskal Herrian demokrazioak oso egoera garritza bizi du eta ez arazo horrengaitik bakarrik, gehiago baitaude; esate baterako, ezin dugu ahaztu orain ETA ekintza armatuak egiten ari dela eta ezin dugu ahaztu, baita ere, egoera zailan bizi direla politikari eta pertsona ugari. Guztiak hartu behar dira kontuan, giza eskubideen urraketak, baina, baita, eskubide sozial eta politikoen urraketak ere.

- Erabaki judizialak politizatzen ari direla uste duzue?

Bai. Oso kritikoak gara legearen erabileraren gainean eta kritika horretan maila bi jarri nahi ditugu. Maila batean, PP eta eskuin muturreko alderdiak jartzten ditugu UPN barne. Horiek ideologikoki aldarrikatzen dituzte erabaki judizial hauek eta hori oso larria da, ez da maila demokratiko batera iristen. Baina beste maila batean, oraindik la-



EKHI BELAK

riagoa da alderdi sozialistak egiten duena. PSOE-k, orain arte, beste balio demokratiko batzuk ahoan erabili ondoren, elkarrizketa demokratikoa esaterako, azkenaldian murgildu egin da PP-k eskatzen zion jokabidera eta instrumentalizatzen ari da bere jokabide hori helburu elektoralistengaitik. Demokraziaren prostituzio hori, beti gaitseztekoa baldin bada, gaitseztekoagoa da oraindik helburu elektoralistekin egiten denean. Eta justiziaren jokabidea ere salatzen dugu. Justiziari behin eta berriro leporatu dioguna esan behar diogu, izugarriko kaltea egiten ari direla epaileak justiziari. Badago esaera zahar bat aspaldiko abokatuok erabiltzen duguna, “justiziari kalte gehiago egiten dio epaile ustel batek ehun lapurrek baino”.

- Nola egingo dlo aurre herriak egoera honi?

“Giza eskubideen urraketak kontuan hartu behar dira, baina baita eskubide sozial eta politikoenak ere”

Nik uste dut elkartu ahal izateko oinarriak bilatu behar ditugula, eta oinarri horiek printzipio eta oinarri demokratikoak dira. Guk elkartasuna adierazten diegu Batasunako atxilotuei, elkartasuna adierazten diegun bezela ekintza armatu batean kaltetuak gertatzen direnei. Baina elkartasuna adierazteak, kondena egiteak edo horrelakoek ez dute balio nahikoa, ez dira aski. Oinarri demokratikoetan elkarketa politiko bat lortzen den momentutik aurrera, herri honek bide guztiak egin ditzake, baita independentziarena ere.

- Euskal arazoaz haratago badago zerbait?

Euskal arazoaz haratago dago dena, euskal arazoaren denean dagoelako murgilduta. Euskal arazoaren gizarte arazoetan murgilduta dago, gizarte arazoaren alde bat da. Abertzaleak ideologia guztietakoak gara eta jakin behar dugu euskal abertzale izateak ez duela esan nahi beste gizarte mailako balioetan iritzirik ez izatea.

Otsailak 22, barixakua

BALLET BIARRITZ
(FRANTZIA)Dantzariak: Ione Agirre,
Véronique Anierte, Annalisa Cioffi,
Miyuki Kanéi, Silvia Magalhaes...
Zuzendaritza: Thierry Malandain
Musika: W.A. Mozart

Coliseoan



20.30

IRAUPENA: 60'

Mozart Ballets

"Mozart à 2" ikuskizunaren koreografia burutzeko maitasun istorioak gogoratzen dituzten piano kontzertuetatik atera da musika. Bost bikote samurtasunaren maparen barrena dabilta pasio eta oinaze artean. Mozart gaztearen doinu desberdinetan oinarritu-



Otsailak 23, zapatua

NAO D'AMORES
(SEGOVIA)Manipulatuzaileak: Elvira Cuadrapani,
David Faraco, Alejandro Sigüenza
Zuzendaritza: Ana Zamora

Antzezleen lana,
txotxongilo antzerkigintza
eta zuzeneko musika

bateratzen dituen eszena jartze berezia. Errenazimenduko antzerkigintzan eskarmentu sendoa duen konpainiak Segoviako hegoaldeko errebalean dagoen San Justo elizako erromaniko sasoiko horma-margo multzo oso garrantzitsuen parte

Heskuntza
Esparruan

20.00

IRAUPENA: 65'

Misterio del Cristo...

19.00/22.00

IRAUPENA: 90'



Coliseoan

Otsailak 25, astelehena

VORÁGINE PRODUCCIONES
(MADRIL)Antzezleak: Guillermo Romero,
Fernando Albizu, José Luis Gil, Rosa Vivas...
Zuzendaritza: José Luis Sáiz

Salir del armario

Komedia bizia, ikuslegoari aukera ematen dio barre lasai egin eta ondo pasatzeko. Egia da ere planteatutako gaiak eta zelan planteatuta dagoen hausnarketara bultzatzen duela. Protagonista kondoi lantegi bateko kontularia da eta kalera bota behar duten susmoa hartuta du. Bizilagun batek homosexualaren itxura egitea gomendatuko dio, horrela, kaleratua izaten bada, diskriminazio

Otsailak 26, martitena

ESPAINIA

Antzezleak: Juan Diego Botto,
Juan Diego, Cristina Plazas,
Esperanza Roy, Rosa María Sardá
Zuzendaritza: Víctor García León

Véte de mí



21.30

IRAUPENA: 90'

Zinea Coliseoan

Eidiporen aitaren istorioa da. Tipo arrunta, bigarren mailako antzezlea Latinako antzoki batean, 55 urteko gizona 38 urteko andregaiarekin, etxebizitza txikitxo Madrilen, zoriontsu samarra... 30 urteko semea heltzen zaion arte, familia oneko Peter Pan bat, aitaren bizitzan zokotxo egiteko asmoarekin datorrena.

Otsailak 27, eguaztena

TEATRO CORSARIO
(VALLADOLID)Antzezleak/Manipulatuzaileak: Teresa
Lázaro, Olga Mansilla, Sergio Reques
Zuzendaritza: Jesús Peña

Aullidos

Ikuskizun berri eta harrigarria. Ikuslego helduarentzat fantasiako ipuina, umore beltza eta erotismo dosi handiarekin; panpina handiak dira bertako pertsonaiak. Txotxongilo horiek trebezia handiz maniatuko dituzte antzezle-manipulatuzaileak. Ikuskizunak duen perfekzio maila sinestezinezkoa da, ikuslegoa guztiz harritu arte.

20.30

IRAUPENA: 65'

Heskuntza
Esparruan

Hillaren
22tik
28rainoko
lanak

Kezkako dantzariak Arriaga antzokian

Juan Antonio Urbeltz eta Argia dantzari taldearen ikuskizun berria, 'Axeri-boda', estreinatuko da domekan, 20.00etan Bilboko Arriaga antzokian, eta bertan izango dira oraingoan ere Kezka dantza taldeko kideak, aurretik 'Kondharian' eta 'Pas de Basque' ikuskizunetan egin zuten bezala. Kezkatik adierazitakoaren arabera, "berriz ere esperientzia interesgarria izan da mota honetako ikuskizun baten sorkuntza eta produkzio

prozesuan parte hartzea, eta domekatik aurrera ikasitakoa eta prestatutakoa emanaldietan erakusteko garaia ailegatu da".

Donostiako Argia dantzari taldearekin batera Iruñeako Duguna, Elgoibarko Haritz eta Eibarko Kezka dantza taldeetako dantzariak bildu dira 'Axeri-boda' ikuskizunean. Juan Antonio Urbeltzen zuzendaritzapean, Iñaki Arregi, Jexux Larrea eta Fernando Aristizabal dantza-maisuek gidatuta, eta Ma-



rian Arregik zuzendutako musikari taldearen doinura, 45 dantzari inguruk parte hartuko dute 'Axeri-boda'.

Bertsolari gazteak Kultun

Datorren egunean, hilaren 28an, bertsolari gazteen bertso saioa egingo da Arrate Kultur Elkarteko tabernan, 19.30etatik aurrera. Saioan parte hartuko duten bertsolariak zehaztu barik claude, baina bertsozale gazteak erakartzeko moduko bertsorik ez da faltako eta, saioa tabernan izanda, zerbait edan edo jaten den bitartean bertsolaritzaz gozatzeko aukera bikaina eskainiko du saioak. Martxoaren 1ean, berriz, Maialen Lujanbio eta Amets Arzallus bertsolariekin bertso bazkaria egingo da Kulturaleko lehenengo solairuan (bazkarirako txartelak, betiko moduan, tabernan salgai ipiniko dituzte). Eta bertsolaritzaren inguruko ekitaldiak girotzeko,



Jose Luis Irigoienek Amaia Agirre eta Nahikari Gabilondo bertsolariei ateratako argazki erakusketa egongo da Kultun astelehenean hasi eta martxoaren 15era arte.

Sostoari eskerrak emanaz



Gure herriko Gautena elkartekoek eskerrak eman nahi dizkiete Santa Ageda batzen kalerik kale koplaka ibili ziren Sostoa abesbatzakoek jasotako dirua autismoa eta garapenerako eragozpenak

dituztenentzako laguntasuna eskaintzen duen elkarte horri eman diotelako. Guztira, 527 euro batu zuten kalejiran eta astelehen horretan Sostoaokoekin batera ibili ziren elkarte horretako kideen senitarteko eta lagunak.

Laburrak

AEK-KO ZOZKETA


AEK Euskaltegiak egutegiaren batera banatutako zenbakien artean egindako zozketan 48.176 zenbakia saritu dute. Otsailaren 15eko ONCE-ko zozketarekin bat datorren zenbaki hori duenak urte osorako 1.000 euroko soldata eskuratu du eta Eibarko AEK-n azaldu dutenez, zenbakia Eibarren saldu da, beraz ondo begiratu txartela, saria herrian saldu baitute. Irabazleak zozketa egunetik hilabeteko epea du saria jasotzeko.

KUTXAKO IKASTAROAK

Kutxak eta Bergarako Uned-ek 3 ikastaro eta hitzaldi bi antolatu dituzte udaberrian Eibarren emateko. Eskaintzaren barruan Photoshop-ekin argazkiak lantzeko ikastaroa (otsailaren 25etik apirilaren 14ra arte, 30 ordu), 'La cocina vegetariana de Patxi Marina' (apirilaren 29tik maiatzaren 27ra arte, 10 ordu) eta 'Embarazo, parto y crianza' ikastaroak (apirilaren 4tik ekainaren 27ra, 18 ordu) emango dituzte. Hitzaldiak, berriz, hauek izango dira: 'El agua: petróleo del siglo XXI' (martxoak 4) eta 'Bitácora de Terranova: los balleneros guipuzcoanos bacaladeros del siglo XX' (apirilak 15). Ikastaroe-tan parte hartu ahal izateko nahikoa da 16 urtetik gorako Kutxako bezeroa izatea. Informazio gehiagorako 902-540040 telefonora deitu daiteke edo, bestela, www.kutxasocial.net helbidean kontsultatu.

BASOAK MATRALLAKON

Martitzenean, Matrallako irrati-ko (FM-ko 102.8an) 'Aldaparetako bizitza' saioan Mendaroko Ibai Portu-k Amo mendiari buruz egingo du berba 21.00etatik aurrera (errepikapena eguaztenean, 14.00etan). Hango basoaren egoeraz eta faunaz jardungo du, inguruari buruzko azterketan oinarrituta.



ANDRES GARECHANA GUERRICABEITIA

otsailaren 16an hil zen

ESKERRIK ASKO hileta-elizkizunera joan eta samin-agurrak bidali dizkiguzuen guztioi



Familiaren partez



Sinmas!

Idazteko egun txarra daukat, antza, eta ez zait ezer onik ateratzen. Irudimen falta edo. Zutabe hau bukatzeko premia daukat baina astelehena da eta ezin dut erraz pentsatu. Sinmas. Askotan entzuten ditut hitz horiek, sinmas, eta bitxiena da edo zertarako erabiltzen direla. Neuk ere erabiltzen ditut eta egia esan ez dakit zergatik. Zenbaitetan, azalpen gutxi eman nahi duzula edo, ondo datoz, eta gainera modan omen daude. Modan dagoe-lako atsegin dugu edo atsegin dugulako modan dago? Berdin dio. Sinmas. Errebal Center edo Boulevard hori bezala. Modan omen dago horren izen ponpoxoak jarzea eta hori bururatu zaio baten bati. Errebal Center. Eibar Factoring asmatu zuten orain dela ez asko eta laster Ipuruia Arena, St Andrew's Church, Untzaga Square and Untzaga Tower, Bidebarrieta Street, The Coliseo Music Hall, Ardanza and Errekatxu Springs, Arrate Valley eta orain dela gutxi berri duten The Urkiko Stone Cross...Turismoa bultzatzeko ere balio izango du. Gaizki ala? I like them! Poliki poliki it will be oso erraza ohitzea eta Mc. Donalds iritsi baino lehenago hobe Big Burger ahoskatzen jakitea...Gaurkoan pasatu egin naiz, ezta? Barkatu aurreko guztia eta espero dut inor iraindua ez sentzitzea. Irudimen falta edo. Astelehena. Sinmas.

Jorge Beorlegi

UEUren udaberriko eskaintza interesgarria

Udako Euskal Unibertsitateak eskaintza zabaldua prestatu du Markeskuan udaberri honetan lantzeko ikastaro eta tailerretan. Betiko moduan, eskaintza guztia euskera hutsean izango da eta gai anitzetan trebatzeko aukera paregabea eskainiko diote jendeari, bertatik bertara, herritik irten barik eta, gainera, Udalak matrikularen erdia ordainduko die horretarako dirulaguntzak jasotzeko bete beharreko baldintzak betetzen dituztenei. Besteak beste, jendaurreko komunikazioa lantzeko tailerra, haur kantak eta jolasak, informazio uholdea kudeatzen ikasteko tailerra, www.berri baten lehen urratsak,



Ikastaroetan eskaintza zabala egongo da Markeskuan. Matrikula epea martxoaren 14ra arte egongo da zabalik.

itzulpengintza automatikoaren nondik norakoak, hizkuntza teknologiak ikasleen testuak aztertzeko, barreterapia eta aromaterapia eta sendabelarrak moduko gaiak lan-

tzeko aukera izango da. Matrikulazio epea martxoaren 14ra arte egongo da zabalik eta informazio osoa www.ueu.org helbidean kontsultatzeko moduan dago.

Modulu irekia Marimendi-koekin

Debabarreneko Esperientzia Eskolak modulu irekia antolatu du martxorako: 'Kirola zahartze

osasuntsu baterako bide'. Modulu Marimendi elkarteko ki-deek emango dute. Marimendi 40 urtetik gorako andra eus-

kaldun eta mendizaleek osatzen dute, 2006. urtean Mont Blanc mendirako espedizioa prestatzeko elkartzen hasi zirenez geroztik. Urte bereko uztailean gailurreraino dauden 4.808 metroak lau bide ezberdinetatik igo zituzten eta aurtengo udarako Kaukasoko mendikatera joateko bidaia prestatzen dihardute. Modulu Elgoibarko Kultura Etxean emango dute, 10.00etatik 11.30etara eta 50 urtetik gorako edonork eman dezake izena, Debegesan dagoen Esperientzia Eskolan (943820110 telefono zenbakian edo nagusiak@debegesa.com).



Gemini operazioa

Gipuzkoa, Bizkaia eta Arabako bikiak laugarrenez elkartuko dira 'Gemini operazioan'. Apirilaren 6rako deialdia egin dute antolatzaileek: 11.15etan Untzagan batuko dira bikiak eta han klabin bana emango diete. 12.00etan, berriz, San Andres elizan meza egingo da eta, on-

doren, taldeko argazkia aterako dute, jarraian txikiteoa hasteko. Bazkaria 14.30etan hasiko da eta izena ematen duen jende kopuruaren arabera erabakiko dute non bazkaldu. Interesa dutenek 40 euro sartu beharko dute apirilaren 3rako, jarraian ematen ditugun kontu korronteetako batean: 3035 0209 91


2091020976 (Euskadiko Kutxa) edo 2101 0035 170124462607 (Kutxa). Umeek ez dute ordaindu behar. Antolatzaileekin harremanetan ipintzeko Eibarko Bizikleta Plazako Kasinora idatzi daiteke (Gemini operazioa idatzia) edo, nahiago izanez gero, 943530193 edo 608207867 telefonoetara deitu.

Artzainak Ameriketara, Ilunabarrian

Datorren asteko eguaztenean, otsailaren 27an, Ilunabarrian hitzaldi-zikloaren barruan, Fermin Zelaeta eta Jose Mari Arretxea ...eta kitto! Euskara Elkartearen egoltzan izango dira, 19.00etatik



aurrera, 'Artzainak Ameriketara' izenburuko hitzaldia eskaintzeko. Zelaieta eta Arretxeak euren esperientziaren berri emanago dute, irudiez baliatuta, eurak Ameriketara artzain izan zireneko bizimodua nolakoa zen azalduz. Hitzaldia gaian interesa duen jende guztiari zabalik dago.



El Ambigúko erakusketa.

Deporreko erakusketa.

Deporreko argazkilarien lanak

Otsalla amalera arte Elbarko Klub Deportiboko Argazkilaritza Taldeko hainbat kideren lanak herriko tabernetan ikusteko moduan izango dira: Mateo Guilabert-en argazkiak El Ambigú tabernan daude, Alberto Lukerenak Depor tabernan eta Alex Bergarenak, berriz, Portaleko tabernan.



Jesika Martínez-Alcocer Portalean

Martxoaren 2ra arte Jesika Martínez-Alcocer Ermuko artista gaztearen lanak ikusgai egongo dira Portalean. Marrazkiek, akrilikoek eta eskulturrek osatzen duten erakusketa ohiko ordutegian bisitatu daiteke kultur etxeko 2. solairuko erakusketa aretoan: martitzenetik domekara, 18.30etatik 20.30etara.

Antzerki jardunaldiek 'La verdad sospechosa' lana jasoko dute hilaren 29an, 20.30etan Coliseoan. Ekitaldi horretan taularen gainean Eibarko aktore bat egongo da: Sardo Irisarri.

Eibartarrak 29 urte daramatza bere pasioa dena egiten: aktore izaten.



SARDO IRISARRI, AKTOREA:

"Zoragarria da zaletuak hunkitu eta emozionatzea"

- Nolakoa izan da zure ibilbidea antzerkian?

Historiaurrera joan beharko ginateke (barreak). 1981ean Ermuko Antzerki Tailerrean hasi nintzen eta 11 urte egin nituen bertan. Honen guztiaren erdian Eibarko Udal Antzerkia eraman nuen 1987an. 1990. urtearen inguruan antzerkia egiteari utzi nion denbora batez, baina orain dela hamar urte, gutxi gorabehera, antzerkira bueltatu nintzen Madriletik lan bat egiteko deitu zidatenean. Hortik aurrera, Madrilén, Badajozén, Madrilén berriro ere, eta orain antzerki jardunaldi hauetara natorren taldearekin (Eurekateatro) 8 bat emanaldi daramatzat.

- 'La verdad sospechosa' antzezlan aurkeztuko duzue hilaren 29an. Zer aurkituko du bertara hurbiltzen denak?

Klasiko baten aurrean gaude. Almagroko jaialdirako, gaztelezarako antzerkian egiten den jaialdi garrantzitsuena denerako, 'urrezko mendearen' parte den autore mexikar bat hartu genuen (Juan Ruiz de Alarcón y Mendoza). Lan honetan bertotan egindako klasikoak ikusiko da, baina guztiz zoroa. Planteamendu klasikoak dauka, jantzi klasikoak, testu klasikoak, baina gaur eguneratuta dago, kamerinoak ikusleen bistan daude, akzio batzuk eszenatik gertatzen dira eta beste batzuk ez.

- Lau papela egiten dituzu antzezlanean. Nola da posible?

Uste dut eskizofreniak nahikoa laguntzen duela (barreak). Lana-

ren banaketa kontua da, hamar pertsonai daude obra honetan eta gure antzerki-taldean 7 aktore garenez, niri lau paper egitea tokatu zait. Oso dibertigarria da, ez zarelako gelditzen eta arropa aldatetako jende aurrean ematen direlako. Horrela, tamalez, funtzio osoan kantzontziloetan nago daukadan triparekin (barreak). Erronka bat bezala hartzen dut, erregistroa, konposizio fisikoa, ahotsa eta abar aldatu behar dituzulako, eta hori guztia polita da.

- Nola ulertzen duzu zuk antzerkia?

Gustatzen zaidan zerbaitetan lan egiteko zortea daukat. Horrela, antzerkia, niretzat lan bat izanda, sumintzen nauden zerbait da, bizitzeko era bat. Antzerkia talde lan bat da, komunikatu eta adierazteko era bat. Gauza zoragarria da lankide bati begietara begiratu eta zaletuengan emozioa sortzea. Niretzat zoragarria da egun batean bufoi dibertigarriarena egitea eta hurrengoan gizon maltzur batena. Antzerkiak ematen duen aukera bat da barruan daukazun 'ni' bakoitza bizitzea.

- Aktore izateaz gain, antzerki klaseak ematen dituzu Berzinen.

Bai. Lan talde izugarri ona daukat eta hau ezinbestekoa da niretzat, eurekin gauza arriskatuak egin ahal ditudalako. Ilusio handiarekin lan egiten duen jendea da eta kalitate handia duena. Euren lanak dituen jendea da, gero antzeztera datoz eta, niretzat, hurrengo egunean berri bultzatzea arrakasta bat da.

telefono jakingarriak

SOS deiak..... 112
 Pegora 010
 Udaletxea 943 70 84 00
 Portalea 943 70 84 39
 Udaltzaingoa..... 943 20 15 25
 Mankomunitatea.... 943 70 07 99
 Debegesa 943 82 01 10
 KIUB 943 20 38 43
 Epaitegia 943 03 34 00
 Iberdrola..... 901 20 20 20
 Naturgas..... 902 12 34 56
 DYA Larrialdiak... 943 46 46 22
 Gurutze Gorria.... 943 22 22 22
 Mendaro osp..... 943 03 28 00
 Anbulategia..... 943 03 25 00
 Torrekua 943 03 26 50
 Errepideak..... 902 11 20 88
 Ertzaintza 943 53 17 00
 Eusko Tren..... 902 54 32 10
 Pesa..... 902 10 12 10
 Taxiak 943 20 30 71
 943 20 13 25
 Alkoholiko Anonimoak 629 14 18 74

autobus ordutegiak

EIBAR-DONOSTIA. Egutero: 07.00, 08.50, 10.30, 13.30 eta 18.30. Laneguna: 08.00, 15.30, eta 20.30. Jaieguna: 09.30 eta 20.30. DONOSTIA-EIBAR. Egutero: 12.30, 15.00, 17.30, 19.30 eta 20.45. Laneguna: 07.00, 09.30 eta 13.30. EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.40etatik 20.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. BILBO-EIBAR. Laneguna: 06.40etatik 21.40etara ordu. Zapateria eta jaieguna: 07.40etatik 21.40etara ordu. EIBAR-GASTEIZ. Egutero: 06.15, 10.45, 14.45 eta 18.45. Zapateria: 06.45, 10.45, 14.45 eta 18.45. Jaieguna: 08.45, 10.45, 14.45, 16.45, 18.45 eta 20.45. GASTEIZ-EIBAR. Egutero: 08.30, 12.30, 16.30 eta 20.30. Jaieguna: 08.30, 10.30, 12.30, 16.30, 18.30 eta 20.30. EIBAR-IRUÑA. Laneguna: 07.45 eta 13.30. Jaieguna: 07.30 eta 18.00. IRUÑA-EIBAR. Laneguna: 10.45 eta 18.00. Jaieguna: 10.45 eta 21.00. EIBAR-ARRATE. Zapateria: 14.15. Domeka eta jaieguna: 09.00, 10.00, 11.00, 13.00 eta 18.00. ARRATE-EIBAR. Zapateria: 14.45. Domeka eta jaieguna: 09.30, 10.30, 11.30, 13.30 eta 18.30. EIBAR-ELGETA. Laneguna: 13.30 eta 20.20. Domeka eta jaieguna: 12.00 eta 19.00. ELGETA-EIBAR. Laneguna: 14.00 eta 20.50. Domeka eta jaieguna: 12.30 eta 19.30. ERMUA-MENDAROA. Astelehenerik ostiralera: 06.20, 07.10, 07.50 (07.50etatik 22.20etara orduerdiro). Zapateria-Domeka-Jaieguna: 06.50-etik 21.50-era ordu. MENDARO-ERMUA. Laneguna: 06.55etatik 21.55etara orduerdiro. Zapateria-Domeka-Jaieguna: 07.55-etik 21.55-era ordu.

tren ordutegiak

EIBAR-BILBO. Laneguna: 06.13etatik 21.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. BILBO-EIBAR. Laneguna: 05.57etatik 20.57etara ordu. + 09.34 eta 20.18. EIBAR-DURANGO. Egutero: + 22.18. EIBAR-DONOSTIA. Laneguna: 06.13etatik 20.13etara ordu. + 10.35 eta 21.38. DONOSTIA-EIBAR-ERMUA. Laneguna: 05.47etatik 20.47etara ordu.

eguraldia

Euskal Meteorologia Agentziatik

HEGO HAIZEA

ZAPATURAKO zerua oskarbi egongo da eta, hego haizearen eraginez, tenperaturak gora egingo du. Maximoak 19°C ingurukoak izango dira. Egunaren amaierarako erdi mailako hodeiak agertuko dira, haize bolada bortitzagoekin. DOMEKAN hodeiak gehitzen joango dira; tenperaturak behera egingo du.

22 barixakua

TAILERRA

17.00/21.00.- Sentsibilizaziorako sormen-tailerra, GKE-eetako boluntarioentzat. La Salle Isasi ikastetxean.

EGO IBAR ZINEKLUBA

17.30 eta 21.00.- 'Red Road' (Zuz: Andrea Arnold). Jatorrizko bertsoia, azpitoluekin. Sarrera: euro 2. Hezkuntza Esparruan.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- 'Mozart Ballets' (Ballet Biarritz). Coliseo antzokian.

23 zapatua

TAILERRA

09.00/13.00.- Sentsibilizaziorako sormen-tailerra, GKE-eetako boluntarioentzat. La Salle Isasi ikastetxean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.00.- 'Misterio del Cristo de los Gascones' (Nao D'Amores, Segovia). Hezkuntza Esparruan.

24 domeka

KONTZERTUA

13.00.- Usartza Txistulari Bandaren kontzertua. Untzagan.

UMEENDAKO ZINEA

17.00.- 'El arca de Noé' (marrakzi bizidunak). Sarrera: 2'80 euro. Amaña Kultur Aretoan.

25 astelehena

IKASTEN

16.00.- Mermelada eta kontserbak artisau-erara egiten ikasteko tailerra. Portalean.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

19.00 eta 22.00.- 'Salir del armario' (Vorágine Producciones, Madril). Coliseo antzokian.

26 martitzena

SORMEN TAILERRA

09.15/14.15.- Tekniker-
IK4 Sormen Tailerra. Markeskua jauregian.



IKASTEN

09.30/12.30.- Hitzaldia: 'Historia del pensamiento político II', Miguel Arroita-jauregirekin. CEPAn (Isasi, 39an).

MAHAI-JOKOAK

16.30.- Tute txapelketa. Beheko Tokian.

GURASOAK MARTXAN

18.30.- Hitzaldia: 'Arazoak ematen dituzten kontsumoen prebentzioa'. Mogel Isasin.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

21.30.- Antzerkia Zine-
man. 'Vete de mí' (Zuz: Victor García León). Coliseo antzokian.

27 eguaztena

MAHAI-JOKOAK

12.00.- Toka eta ugartxo lehiaketa. Beheko Tokian.

ILLUNABARRIAN

19.00.- 'Artzainak Ameriketarako'. Hizlariak: Fermin Zelaieta eta Jose Mari Arretxea (irudiak ere eskainiko dituzte). ...eta kitto! Euskara Elkartearen (Urkizu, 11 solairuartea).

GURASOAK MARTXAN

19.00.- Hitzaldia: 'Cómo prevenir el fracaso escolar'. La Salle Isasin.

ANTZERKI JARDUNALDIAK

20.30.- 'Aullidos. Un cuento de hadas para adultos' (Teatro Corsario, Valladolid). Hezkuntza Esparruan.

28 eguena

IKASTEN

11.30.- Hitzaldia: 'El desafío de China'. Hizlaria: Jesús Torquemada. Hezkuntza Esparruan.

MAHAI-JOKOAK

16.30.- Mus txapelketa. Beheko Tokian.

BERTSO-SAIOA

19.30.- Bertsolari Gazte-
en Bertso Saioa. Kultu tabernan.

'EIBAR FACTORING' beherapenen azoka.

Noiz: Otsailaren 20tik 23ra.
Non: Astelena frontoian.

erakusketak

Otsailaren 28ra arte

Mateo Guillabert-en argazki erakusketa.
El Ambigú kafetegian.

Alberto Lukeren argazki erakusketa.
Deporreko tabernan.

Alejandro Bergararen argazki erakusketa.
Portalea tabernan.

Martxoaren 2ra arte

Jesika Martínez-Alcocer-en 'Interbentzioa aretoan' erakusketa (marrazkiak, akrilikoak, eskulturak).
Portalean.

Mari Fran Ereña eta Olga Gómez-en pintura eta zeramika erakusketa.
Topalekuan.

lehiaketak

ProiektEIBAR Proiektu Teknologikoen Lehiaketa

Epea: **Martxoaren 1era arte.**
Informazioa:
www.euiti.eibar.ehu.es

Makrolehiaketa

Epea: **Martxoaren 2ra arte.**
Informazioa:
Errota Gaztelekuan

XI. Eguen Zuri Argazki Lehiaketa

Gaia: Aratosteak.
Epea: **Martxoaren 4ra arte.**
Informazioa: Arrate Kultur Elkarte.
www.eibar.org/blogak/kultu

XIV. Ipurterre Ipuin Lehiaketa

Epea: **Martxoaren 12ra arte.**
Informazioa: ...eta kitto!
Euskara Elkarte.
943-200918 telefonoa


II. Industriagintzari buruzko argazki lehiaketa

Gaia: Industriagintza.
Modalitatea: Euskarri digitaallean.
Epea: **Martxoaren 14ra arte.**
Informazioa: Armeriako Ikasle Ohien Elkarte.
943-203146 telefonoa.
aaa@armeriaeskola.com


VIII. Eskola-Bideo Lehiaketa

Epea: **Martxoaren 30era arte.**
Informazioa: La Salle Azitain.
Telefonoa: 943121698.
lsallensae@planalfa.es

denborapasak




Aurkitu hemen Eibarren egondako 8 zine-aretoen izenak.



Aurrekoaren SOLUZIOA

zinemazinema



untzaga
"Caramel"

ZUZENDARIA:
Nadine Labaki
AKTOREAK:
Nadine Labaki, Yasmine Al Masri, Joanna Moukartzel...

Bost emakume batzen dira Beirut-eko edertasun zentro batean. Bakoitzak bere bizitza dauka, bakoitzak bere arazoak ditu. Layalek, adibidez, Rabih maite du, baina ezkonduko gizona da Rabih...



ego-ibar
"Red Road"

ZUZENDARIA:
Andrea Arnold
AKTOREAK:
Kate Dickie, Tony Curran, Martin Compston...

Jackie-k hiriko zaintza-kameren irudiei begira lan egiten du Glasgow-n. Halako batean gehiago ikusi nahi ez lukeen gizona agertuko zaio pantailan. Hortik aurrerakoa da filmaren funtsa...

farmaziak

22. barixakua

GOIZEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

23. zapatua

GOIZEZ **Las Heras** (Sostoaarren, 20)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

24. domeka

GOIZEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)
GAUEZ **Elorza** (J. Gisasola, 18)

25. astelehena

GOIZEZ **Larramendi** (Calbetón, 19)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

26. martitzena

GOIZEZ **Mendinueta** (Urkizu, 6)
GAUEZ **Lekunberri** (Isasi, 31)

27. eguaztena

GOIZEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)
GAUEZ **Goikoetxea** (Ibarkurutze, 7)

28. eguena

GOIZEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)
GAUEZ **Zulueta** (S. Agustin, 5)

29. barixakua

GOIZEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)
GAUEZ **Mandiola** (S. Agustin, 3)

hildakoak

- Felipa Labaka Etxezarreta. 95 urte. 2008-I-30.
- Felipe Fernández Uribarri. 88 urte. 2008-II-11.
- Carmen Cid Otero. 92 urte. 2008-II-12.
- Luis Alberdi Unanue. 88 urte. 2008-II-13.
- Fernando Luis Gómez Gutiérrez. 81 urte. 2008-II-14.
- Alex Marfull Astigarraga. 54 urte. 2008-II-15.
- Andres Garetzana Gerrikabeitia. 88 urte. 2008-II-16.
- Asunción Ortíz de Salazar Pinedo. 84 urte. 2008-II-15.
- Julio Arrizabalaga Agirreburualde. 86 urte. 2008-II-19.
- Mercedes Telleria Izagirre. 95 urte. 2008-II-19.
- Felix Peribáñez Ferrero. 72 urte. 2008-II-20.
- Benita Lamariano Garitagoitia. 92 urte. 2008-II-20.

jaiotakoak

- Elur Aiarza Odriozola. 2008-I-27.
- Alazne Carballo Cabello. 2008-I-28.
- Ander Sola Agirreazaldegi. 2008-I-29.
- Aroa Ramos Ramírez. 2008-II-1.
- Pedro Santamarina Pérez de Albeniz. 2008-II-2.
- Igor Prieto Alzelai. 2008-II-3.
- June Bilbao Romero. 2008-II-5.
- Libe Urrea Bereziartua. 2008-II-9.
- Helga Ariznabarreta Mugerza. 2008-II-10.
- Mara Leturiondo Gisasola. 2008-II-10.
- Jokin Laskurain Pagaegi. 2008-II-11.
- Eneko Urkola Arriaga. 2008-II-11.

ETXEBIZITZAK

- Elgoibarko Sigman pisua salgai. 60 m². Logela bi, egongela, sukalde handia, komuna eta balkoia. Berriztua, jantzita eta oso eguzkitsua. Tel. 636-274420.
- Eibar erdialdean pisua hartuko nuke alokairuan. 3 logela eta egongelarekin. Tel. 943-203924.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 626-061112.
- Debagoienan edo Debabarrenan pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 619-812347.
- Pisua salgai Legarreko dorreetan. 3 logela, egongela, sukalde, komun bi, balkoia eta despentsa. Eguzkitsua eta dena kanpora begira. Tel. 653-733357.
- Soralezeko Rabal kalean pisua salgai. 64 m². Logela bi, egongela, sukalde eta komuna. Tel. 658-339709.
- Eibarren pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 649-199638.
- Pisua salgai Egiguntarren. Logela bi, sukalde-jangela-egongela eta komuna. Trasteroa etxe barruan eta beste bat kanpoan. Jantzita. Egoera onean. Tel. 635-752986.
- Logela edo pisua hartuko nuke alokairuan. Tel. 679-568370.
- Logela alokagai. Tel. 686-286110.
- Pertsona behar da etxea konpartitzeko. Oso prezio onean geratzen da alokairua. Tel. 637-528992.

LOKALAK

- Elgoibarko Olaso poligonoan lokala salgai. 200 m². Bulegoak ipintzeko prestatura. Tel. 639-313293.
- Jatetxea traspasoan jubilazioarengatik. Martxan eta oso egoera onean. Tel. 697-494283.
- Trasteroa erosi edo hartuko nuke alokairuan. Tel. 627-934675.

Iragarkiak ipintzeko: **943-200918 (Marisol)**.

Atal honetako iragarkiak doan dira, etxeen, lokalen eta autoen kasuan izan ezik. Azken hauetako **PREZIOAK** honakoak dira: **Etxeak, lokalak, garajeak:** alokatu, 10 euro; saldu, 15 euro. **Autoak:** 10 euro. **Doaneko iragarkietan, 12 hitz onartuko dira gehienez.**

SALEROSKETAK

- Solarium tolesgarria salgai. Infragorriak eta MP3-arekin. Étxerako. Berria. 950 euro. Tel. 699-623821.
- Bizikleta salgai. Orbea Arin markakoa. Dura-ace taldearekin. 2005ekoa. 1.700 euro. Tel. 656-768944.
- Bikotearentzako kanping-eko koltxone-ta salgai. Erabili gabe. Puzgailua opari. Tel. 653-717875.
- Errepideko bizikleta salgai. Osagarri guztiarekin. Behin erabilia. Prezio onean. Tel. 653-717875.
- Mountain-bikea salgai. Orbea Orion markakoa. 24 tailakoa. 7 urtetik aurrerakoentzako. Deitu 20.00etatik aurrera. Tel. 943-530746.
- Errepideko bizikleta salgai. Vitus Futural koadroa, 56 tailakoa, kanbioak manillarrean. 175 euro. Tel. 943-530880 edo 688-609610.
- Ejekutiboarentzako narruzko maletina salgai. Erabili gabe. Tel. 676-116300.
- Jantokiko mahaia eta aulkiak salgai. Berriak. Tel. 943-702589 edo 686-031181. Teresa.
- Las aventuras de Tintin'en 14 bideo salgai. Fundarekin. Berriak. 7 euro. Tel. 943-120030.
- Ohe-nidoa, eskritorioa, apala, sinfonierria eta almohada-kutxa salgai. Merke eta berria. Tel. 943-701183.
- Kotxe-kapota, silla txikia eta kapazoa salgai. Bebe-car markakoa. Tel. 943-200739 edo 605-774767.
- Korrika egiteko zinta salgai. Tel. 656-789221.

AUTOAK

- Renault Scenic salgai. Egoera onean eta extra guztiarekin. IAT pasatuta. 85.000 km. Tel. 607-230077.

LANA

- Ileapaintzailea behar da jornada erdirako. Esperientziarekin. Tel. 637-302318.
- 28 urteko mutil arduratsua eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 625-917400.
- Emakumea behar da umeak zaindu eta etxeko lanerako. Ordutegia: 08.15-12.15. Tel. 667-656096.
- Neska eskaintzen da arratsaldez umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 671-439914.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 679-095634 edo 943-530718.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 608-376387.
- Neska eskaintzen da nagusiak, gaixoak eta umeak zaintzeko. Tel. 943-200994 edo 617-571210.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako, interna edo externa moduan. Tel. 699-813826.
- Emakumea eskaintzen da kamarera lanak egin eta umeak edo nagusiak zaintzeko. Tel. 610-902124.
- Mutila eskaintzen da makinak garbitzeko. Ikasketak eta esperientzia. Tel. 610-902124.
- Neska arduratsua eskaintzen da goizez garbiketa lanerako. Tel. 665-726288.
- Gizona eskaintzen da elektrizista, iturgin eta peoi lanerako. Tel. 605-363960 edo 943-530718.
- Neska eskaintzen da arratsaldez garbiketa lanak egiteko orduka. Tel. 690-791689.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 626-865691.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 606-658464.
- Erizain laguntzailea eskaintzen da nagusiak zaindu. Tel. 663-301585.
- Neska eskaintzen da kamarera moduan lan egiteko. Esperientzia. Tel. 663-301585.
- Mutil euskalduna behar da banaketak egiteko. Gidatzeko karnetarekin. Tel. 665-737830. Jon.
- Emakume euskalduna behar da Eibarko denda batean lan egiteko. Tel. 676-193782.

- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta etxeko lanerako. Baita jostun lanerako ere. Tel. 686-521598.
- Neska behar da asteburu eguerdian kamarera bezala eta sukalde lanak egiteko. Tel. 699-181472.
- Emakumea eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 649-368137.
- Neska eskaintzen da orduka umeak edo nagusiak zaindu eta etxeko lanerako. Tel. 660-739555.
- Neska eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 630-404538.
- Emakumea eskaintzen da orduka lan egiteko. Tel. 616-305808.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak edo umeak zaindu. Tel. 697-869958.
- Mutila eskaintzen da kamarero moduan edo garbiketa lanak egiteko. Tel. 680-250527.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu, garbiketa lanak egin eta kamarera moduan. Tel. 680-250527.
- Enpresa Zientzietan diplomatuak laguntza klaseak ematen ditu etxez-eta. Edozein irakasgai. Tel. 647-232536.
- Ingeleseko klaseak ematen dira etxez-eta. Tel. 647-232536. Jaione.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 659-627356.
- Emakumea eskaintzen da edozein lanerako. Tel. 658-400556.
- Lizentziatuak klase partikularrik ematen ditu maila guztietan. Talde txikiak eta prezio onean. Tel. 943-121898.
- Sukaldaria behar da. Esperientziarekin. Tel. 610-619421. Rakel.
- Neska eskaintzen da umeak edo nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 639-240038.
- Neska eskaintzen da asteburuetan nagusiak zaindu. Tel. 679-568370.
- Neska eskaintzen da nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 636-172765.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 690-134485.
- Neska eskaintzen da orduka nagusiak zaindu eta garbiketa lanerako. Tel. 686-127137.
- Sukalde laguntzailea behar da. Tel. 943-121262.

...eta musu bat zuretako

Zure senide edo lagun bat zoriontzeko aukera ezin hobea eskaintzen dizugu. Argazki arruntaren prezioa 3 eurokoa izango da; argazki bikoitzarena (bikoteak...) 6 euro. Argazkia eta testua eguaztena aurretik egon beharko da ...eta kitto!-n.



Zorionak, NAGORE, gaur zure eguna da-eta. Zure kuadrillakuen partez, muxu handi bat.



Zorionak, NAROA, martitzenian 4 urte egin zenittuelako. Aitxitxa, amama eta osaba-izekoren partez, muxu handi bat.



LIBEren jaiotza dela-eta, zorionak Iñaki, Lara eta hiruroi, famelixaren partez.

**Badakizu Elgoibarren
Ingeniaritza egin
daitekeela lan eta ikasiz?**

Ate irekiak:

Zatoz eta ezagutu gaitzazu!!

Martxoak 1, Goizeko 11:00etan

IMH Ingeniaritza Eskola - Azkue auzoa, 1 - 20870 Elgoibar - Tfnoa. 943 74 82 64 - Ingeniaritza@imh.es
www.imh.es/ingeniaritza-eskola

CENTRO MEDICO EIBAR

INKORPORAZIO BERRIAK:

- FOTODEPILAZIO UNITATEA, IPL LASERRAREKIN
- FOTOGAZTETZEA
- DOANEKO DIAGNOSTIKOA
ETA NEURRIKO FINANTZIAZIOA

Unitate berri hau martxan ipini dugula-eta,
Eibar Osasundegian %10eko deskontua
eskaintzen dizuegu otsailaren amaierara arte.

Urkizu Pasealekua, 13
Tlfn. 943.120.200

**Chevrolet Epicak zorientatu egingo zaitu.
Horrela ez bada, dirua bueltatuko dizugu.**



EPICA

Chevrolet markako edozein auto erosi, hilabete edo 3.000 kilometro ibaratu egindako erosi-kita ona izan dela balioztatuko. Chevrolet Epicak horako hauek ditu: ABS, EBD, ESC, 6 aire-poltsa, antipartikuladun filtro dieselak, aire girogailu automatikoa, Cruise kontrola, eulazendako eta atzealdeko aparkaleku bertikalek eta 16 pulgadakoa aldiakidokoa hagarak.

EPICA VCDi

150 ZP Diesela

5 urteko garantia

20.900 eurogatik

www.chevrolet.es

Informazioa 902 303 900

GEHIAGO DA.



CHEVROLET

Glastra Eibar - Daxola, 27 - Tel.: 943 203 900 - Salmeritak: 902 345 225 - Salmerita ondoerregia: 902 345 225 - E-mail: clientes@glauto.es - www.glauto.es
Glastra Gabeiria - Karubi Ind. - Tel.: 943 885 150 - Salmeritak: 902 345 225 - Salmerita ondoerregia: 902 345 225 - E-mail: clientes@glauto.es - www.glauto.es